

Arrasate

P R E S S

1998ko
Uztailak 17
416. zenb.



Biribiletan biraka

IKUSPEGIA: JOSERRA AGIRREURRETA • **KULTURA:** JON RUIZ DE ZARATE
EUREN IKUSPUNTUTIK: MIKEL OLABE • **KIROLAK:** IVAN VELASCO



Arrasateko OSASUN GIDA

AKUPUNTURA

- INTEGU (Masajea, Osteopatia) Iturriotz kalea, 10 -1 ☎ 943 77 13 34

GAIBERRITZEA-ERREHABILITAZIOA

- FRANCISCO JAVIER LOPEZ DE MUNAIN. (Medikua) Zaldibar, 4-1 ☎ 943 77 14 72

ERREUMATOLOGIA

- GOROSARRI - TROJAOLA Dreak. Zaldibar, 1-1 ☎ 943 77 00 40
- JUAN RAMON ARANDO. Erdiko kale, 22 -1 ☎ 943 79 72 16

FISIOTERAPIA

- ANDONI ETA MARIA BASTERRETZEA ERREHABILITAZIO ZENTRUA Olarte 43 Bis ☎ 943 77 03 96

LOGOPEDIA

- ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Erdiko kale, 37 ☎ 943 79 79 46
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga, 10 ☎ 943 79 48 77

MASAJEAK

- EUGENIO RAMOS Bizkaia Etorbidea, 12- 2 Esk. ☎ 943 77 06 22
- JOSE LUIS AÑUIN San Josepe, 10 Behea, D (Kiroldegian ere bai) ☎ 943 77 01 33

ODONTOLOGIA

- ADUR ODONTOLOGIA INSTITUTU MEDIKUA Iturriotz, 35 ☎ 943 79 95 60
- ARRASATE HORTZ KLINIKA Iturriotz, 17-1 Ezk. ☎ 943 79 72 23
- ARREGI HORTZ KLINIKA zerkaosteta, 19 behea ☎ 943 79 71 90
- GIPUZKOAKO ODONTOLOGIA ESPEZIALITATEEN ZENTRUA Iturriotz, 7 Bis ☎ 943 79 73 88
- IRIARTE IRURETA, ANE MAITE Iturriotz, 7- 1 ☎ 943 79 69 45
- LOPEZ DE GOIKOETXEA (Goiz eta arratsalde) Alfonso X. Jakintsua, 5 ☎ 943 79 17 74
- LORENZO MARTIN, RAFAEL Zarugalde, 3- 1.-B ☎ 943 77 12 63

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

- UDALAITZ MEDIKU-ZENTRUA (Analisi klinikoak, R-X) Ferrerías, 56-Behea ☎ 943 79 44 22

OPTIKA

- ARRASATE OPTIKA (Optika, Optometria eta kontaktologia) Kontzeziño, 6 ☎ 943 79 25 98
- LARRAÑAGA OPTIKA (Optika eta optometria) Juan Carlos Guerra, 1 ☎ 943 79 29 95

ORTOPEDIA

- ORTO LAGUN ORTOPEDIA Kontzeziño, 2 ☎ 943 79 89 34

OSTEOPATIA

- NEREA BENGEOA (Bizkarreko minak eta lunbalgiak) Azoka kalea, 4 (Mobila) ☎ 989 58 66 89

OTORRINOLARINGOLOGIA

- ZULUETA ETA NAVARRO Dreak (Arratsaldetan). Zerkaosteta, 17 behea ☎ 943 79 20 18

PODOLOGIA

- AZKARATE MORRAS Uribarri etorbidea, 5 behea ☎ 943 79 53 63

PSIKOLOGIA

- TXOMIN NUÑEZ Olarte, 10 ☎ 943 79 88 16
- PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA Ignacio Zuloaga, 10 ☎ 943 79 48 77
- ARRASATE LOGOPEDIA ZENTRUA Erdiko Kale, 37 ☎ 943 79 79 46

UROLOGIA

- LLUCH, ALBERTO (Centro Médico Udalaiz) Ferrerías, 56 ☎ 943 79 44 22

Bi anai(a)

Ez dira odoleko anaiak. Nik anaiak bakarrik daukat. Arreba ere badaukat. Beraietaz luze eta ondo idatziko nukeen arren, ez dut eurei buruz idazteko betarik hartuko. Hurrengoan izango da.

Izenburuko bi anaiak, eskola lagunak ditut. Gauzak korapilatzen eta nahasten hasi aurretik, kolpetik esan dezadan, mirestu eta gogoko ditudan bi lagunmin ez ariko nartzazuela.

Gazteagoak ginenean, apaizak munduko nagusi zirenean, mundu honetako erru eta bekatu guztien zama gure bizkar jarri nahi zigutenean, ezetz esan zuten eta batikanoaren atzaparretatik libratu ziren.

Geroago, gure bizitzetako babesle eta aholkulari ziren biatoristik, "ingenieroa ala miseri gorria" leloa zabaldu zutenean, eurek ikaske-



Joseerra Agirreurreta

ta ezteko ausardia izan zuten. Balentria diot, ze orduan eta gaur ere bai, ikasketak omen dira miserableak miseriatik ateratzeko dugun arma bakarria. Bi anaiok ikasten jarraitu zuten, baina bizitzaren eskolan.

Ni neu neskei lotsarik handienarekin hurbiltzen hasi nintzaienean, eurek neskez gozatzaren ziren ahalik eta modurik gartsuenean. Ibilkera izango zen, zeramaten ile luzea behar-

baña, edo-ta gutun erromantikoetan erakusten zuten trebezia agian. Begira egoten ziren begira, gustatzen zitzaizkien neskei bizkarra emanda.

Soldaduzkarik ez zuten egin, denek egiten zuten garaian. Soldaduzkako atorrrak gure herriko gazteek baliozko gauzatzen zutenean, eurek tirantezko galtza larantjak jutzen zituzten.

Deba goren hau, krisirik basatienean murgilgu zenean, kooperatibek eskai-

ni zieten lan finkoari ezetz esan zioten denen harridurarako: "gu ez gaituk katea horretan loturik egoteko jan-txakurrak, motel", zioten lotsagabeki. Ordurako pentsatuta zuten lurralde epelagoetara jotzea, bizitza errazagoa egingo zitzaiean eremuetara, jakina.

Ez dira, ez, axalekoak; sakon eta mamitsu pentsatzen dute. Ez dute ohiko lanik nahi, baina nik beti lanean ezagutu ditut. Arrasate bezalako herrian aspertzaren dira, ziutatean gaixotu. Ez dira axolagabeak, gure bizimoduez gogaituta daude. Gure bailarako lanaren mitoa haizea hartzera bidali dute, eztabaida ezina eztabaidagai bihurtuz, besterik ez.

Zaila omen da perfekziora heltzea, baina haiek ni baino gertuago daude. Ez diet akatsik ikusten. Inoren antzik ez dute, guztien pare izanda. Jendartea dute gogoko, baina denbora gehienean bakarrik dauka. Pipia erreta mozkortzen dira, batzuetan, keak ez die urrutiko parajeak ikusten uzten eta orduan euren barruetara jartzen dira begira, etorkizunean biziko dituzten ametsek lokartuko dituzten arte.

"Gure bailarako lanaren mitoa haizea hartzera bidali dute"

"Gure herrian bi karlistaldi izan ditugu. Pentsatu beharko genuke ez ote garen hirugarren karlista gerratea prestatzen ari"

Eugenio Ibarzabal

483

kiniela bete dira Montanean

Tourraren inguruko 483 kiniela bete dira aurtengo Monte tabernan, iaz baino 32 gehiago. Diru bilketa 2.415.000 pta.koa izan da. Horren %15 Arrasate Txirrindulari Elkartera doa. Gainerakoa saritarako. 1. saria 845.250 pta.koa izango da. 2.a 483.000 pta.koa, eta 3.a 301.875 pta.koa.

ITURRI ONETIK

Erlea Interneten

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak asmoa du Erlea izeneko sare bat sortzeko Interneten, sailarekin harremanak dituzten erakunde, elkarte eta gizabanakoek euren informazioa azal dezaten propio sortuko zaizkien eremuetan.

Eremu horiek doanekoak izango dira eta aipatutako artean nahi duenak egin ahal izango du. Baldintza bakarra da testuak euskaraz izatea, nahiz eta gaztelania, ingelesa edo bestelako hizkuntzak ere erabili ahal izango diren. "U2 Grupo Interlinea 2000" izeneko enpresa arduratuko da proiektua gauzatzeaz.

Egitasmoaren aurkezpena irailaren lehen hamabostaldian egingo omen da.



ARKO
ARRASATE
KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS
Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Otalora kalea, 31 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tel.: 943 77 05 65. Faxa: 943 77 09 40
E-mail: arrasatepress@readyssoft.es
Tel. mugikorra: 908 39 78 86

Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Jose Aranzabal. **Kazetariak:** Manjo Deogracias, Marian Porcel, Naiara Gorroño. **Publizitatea:** Kaitlin Allende, Nerea Zallo Arantxazu Lagunilla. (Tel.: 943 77 08 15). **Administrazioa:** Agurtzane Gaitzarain (Tel.: 943 79 02 28). **Disenatzailea:** Txos Azumendi. **Asteburuetako berriemakalea:** Lierni Urbarren. **Kolaboratzaileak:** Ander Etxeberria, Marta del Campo, Iban del Campo, Itxaro Artoia, Bixente Azkarate, Joxerra Agirreurreta, Juan Luis Azkarate, Aitor Orobengoa, Mikel Irizar, Udaleko Gazteria Saila, ASA Ialdea, Eneko Allende, Besaide M. E., Karmelo Urbarren, Bixente Pagoaga, Amaia Jaurregi-Arraburu, Juan Bautista Agornia, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Xabier Letona, Karmele Perez, Kofi, Jon Ozaeta, Jabi Luengo, Maite Barrena. **Banaketa arduraduna:** Jassne Mendizabal-AED. (Tel.: 943 77 12 28). ©ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.300. **Logo-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oriati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkariaren adierazitako esanien eta iritzien erantzunkizunik.

ARRASATE PRESS paper birzikilatua egiten da.

Azaleko argazkia: Ignacio Perez.



Arrasateko Udaleraren laguntza



Gipuzkoako Foru Aldundiren laguntza



Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileraren laguntza

ITXURAK EGITEN?

Zein polita! Zein onak garen!
Nola gustatzen zaigun dominak jartzea! Miseria gorrian bizi diren haurrak ekartzan ditugu eta zein onak garen!

Eta sinestu egiten dugu, eta egia da, Txernobilgo istripuak oraindik ere ondorioak ditu, haur batzuek jasaten ari direnak.

Eta guk lagundu egingo diegu! Hilabete batzuetarako ekartzen ditugu, erakusten diegu hemen zein ondo bizi den jendea eta nahi dutena ematen diegu. Baina, kontuz. Hori da dena ala badago besterik?

Haurra etorri beharko litzateke egoera egokia eskaintzen dion familia batekin bizitzera. Edozein bikotek ekar lezake haur bat? Dirua baino ez da behar? Ala inportanteagoa litzateke haurrak maitasuna eta alaitasuna jaso ahal izatea eta ez senar-emazte bereiztuak edo arazorekin, edo besterik gabe mozorroa jantzi eta antzestu baino egiten ez dutenak eta gero etxean erabat apurtuta daudenak.

Mesedez! Nor engainatu nahi duzue? Eta gainera dominak jarri nahi dituzue?

*Miren Karmele
Leanizbarrutia*

ANKERTASUNIK GABEKO SAN JOANEN ALDE

Naturari isiltasunean behatzen badiogu eta bertako arte eta bizi era guztiak geureganatzen baditugu, hobeto

sentituko gara eta horiek guztiak maitatzen eta errespetatzen ikasiko dugu. Era berean, horrek pertsona hobekiaz izaten lagunduko digu, paradisu eder horren partaide sentitzean, elkartasunezko baloreekiko sentiberatasuna areagotu egiten baita. Ondorioz, Ama Lurraz gozatzen duten gainerako izaki guzti-guztieki portaera etiko apala sortuko zaigu.

Animaliak maite dituzten pertsonak salatu egin behar dituzte herri jai guztiak non, jendearen dibertimenturako, animaliei era guztietako torturak egiten zaizkien.

Hanka kopurua gorabehera, izaki guztiak sentitzen dituzte mina eta ankertasuna, nahiz eta animaliek ezin duten salatu bizi duten bidegabekeria. Horregatik, gauzak bereizteko ahalmena duen eta minaren eragina ezagutzen duen gizakiak borroka egin behar du bidegabekeria horiek baztertzeko. Ezin liteke ingurugiroa defendatu eta aldi berean animaliak errukirik gabe hiltzeaz gozatu.

Usoak, eperrak, galeperrak edo beste edozein animalia tirokatzea ankertasun izugarria da. Hori egiten duenak txikitetasuna, irudimen urria eta sentiberatasunik eza erakusten du.

Negargarria da jakitea Arrasaten, arrazoi erabat komertzialak tarteko, praktika nazkagarri hauetan parte hartzen duten erakundeak dardela. Are larriagoa da erakunde publiko batek, hala nola udalak, errespetu eta adiski-

detasunaren etikan oinarritutako kultura bultzatu beharrean, animaliekiko bortizkeria erabiltzeari oniritzia ematea, ekintza gaitzesgarriak baimenduz eta jaietako egitarauan haien publizitatea eginez.

Ferrater Morak zera diosku: "animalien etsai izatea gizakien etsai izateko modu bat da".

EKI

"TRIPARTITO" ETA IJITOK (ETA 2)

Arrasateko geltoki zaharretan bizi diren bi ijito familiak berriro, eta hirugarren aldiz, gure herrian erroldatzea eskatu dute. Jose M^a Loiti alkate jaunak, berriz, duela lau hilabete, joan zen 98-02-09tik hain zuzen ere, euren eskaera baztertu eta ez du pertsona hauek erroldatzen uzten.

Udal teknikariek hartutako iniziatibak, bi familia hauek herrian integratzen laguntzeko eta euren bizi baldintzak hobetzeko, behin eta berriz oztopatu ditu hirutatiko gobernuak. Tokiz aldaraziz, ura eta argindarra moztuz, eskolartze laguntzak kenduz, etabar. Eta azkenik, tokia libre uzteko agindua!

Hori zen aspalditik Loiti alkate jaunaren eta bere zinegotzi taldearen helburua. Batzordeetan gai hau aztertzerakoan, "tripartito"ko zinegotziek txutxumutxu maltzurak eta ijitoen bizi baldintza

prekarioaren komentarioak besterik ez zuten egiten. Laguntza emateko edo konponbide bat lortzeko asmorik ez dute sekula ere adierazi.

"Tripartito"ko (PNV, EA, PSOE) zinegotzi xenofobo hauek publikoki salatu nahi ditugu. Herriaren arazoei aurre egin, *irtenbideak eman*ez kasu batzuetan beharrezkoak izaten diren sentsibilizazio kanpainak bultzatu eta bi familia hauei integratzen laguntzeko eskua luzatu beharrean, euren oskolean itxi dira. Eta inor baino xenofoboagoa, Jose M^a Loiti alkate jauna da, ekintza arrazista guztien estandarrea eramanaz.

Arrasateko 41 elkarte eta talde ezberdinen sinaduraz eskatu da ijito familia hauei laguntza ematea eta erroldatzea. Talde hauetan ia Arrasate osoa ordezkaturata dagoela esan daiteke. Eliza ezberdinen elkarteak, hainbat gazte talde, sindikatuak, Arrasateko ikastetxeak, emakume taldeak... etabar daude. *Noren ordezkariak dira Loiti jauna eta bere zinegotzi taldea? Noren jarrera defenditzen dute? Euren? PNV-EA-PSOE-rena agian?*

SOS-Arrazakeriaren idazkia, 41 taldek sinatzeak adierazten du gure gizartearen gehiengoak ez dituela nahi gure herrian jarrera xenofobo hauek. Beraz, ea Arrasateko Udalaren Gobernu batzordean dagoen "tripartito"ak eta alkateak zerbait ikasten duten herritarrengandik.

*Ioli Perez de Arenaza,
HBko zinegotzia*

**HIES
EKIMENA**

Astelehen, astearte
eta ostiraletan
5etatik 8etara.

Tel.: 943 79 26 99

Sili Sili

Martxa eta estilo
handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE
Tel.: 943 79 81 82

**UGARAN
jatetxea**

Garagartza auzoa
Tel: 943 79 76 58
ARRASATE


M

MEMESA
Industria hornidurak

Tel. 943 71 24 25


Biribilek zirkulazioa arindu dutela uste duzu?

Biribilek hainbat zirkulazio argi eta stop seinale ordezkatu dituzte.




Juan Mari Irizar
(43 urte)
Langilea

Ni ez naiz mondragoetarra, baina nire ustez errazagoa da herrira sartzea biribilak ipini dituztenetik.



Maximo Uribealago
(70 urte)
Erretiratua

Trafikoa hobetu ez dakit, baina segurtasun handiagoa bai. Orain errepideak konpondu beharko dituzte.



Juan Luis Gorroño
(49 urte)
Taxista

Trafikoa ez da hobetu, jendeak ez daki-eta nork daukan lehentasuna eta oraindik ilara txiki batzuk egiten dira.



Maruja Fernandez
(47 urte)
Taxista

Orokorrean trafikoa hobetu egin da, baina Udala plaza-ko oso txikia da ibiltzen diren auto guztientzat.



Elena Landaluze
(39 urte)
Langabea

Nik ez dut ulertzen. Uste dut trafikoa arintzen dela, baina ulertzen duen batek ezetz esan dit, ilarak egiten direla. Baina niretzat, arindu.



Ramon Agirrezabal
(28 urte)
Udaltzaina

Denbora gutxi daramat hemen, baina ikusi dudanez, zirkulazioa hobeto dabil eta arinago doa.



Sara Servide
(27 urte)
Langilea

Nire ustez, trafikoa arindu egin da. Gainera, zirkulazio argiak kendu eta lorategiak ipinita, alaitu bezala egin dute herria.



Mari Cruz Estrella
(46 urte)
Etxekoandrea

Autoak hobeto dabiltzala esango nuke eta bidegurutzeari gehiago errespetatzen dutela dirudi. Gainera, gustatzen zaizkit biribilak.

Spek Denda

Iturriotz, 19
(Herriko plaza) ARRASATE

OPEL

GARAJE NORTE

AGENTZIA OFIZIALA

Marka guztien konponketa eta zerbitzu osoa

BASABE POLIGONOA, A-13 PABILIOIA
Tel.: 943 79 62 65/943 79 20 86
Faxa: 943 77 16 20

Arrasate

LANAK

TAKOLON


Biribil berria egiten ari dira.

AZATZA ETXEETAN

Monterron eta Musakola lotuko dituen pasealekua egiteko lanak.


ARRASATE PASEALEKUAN

Konponketak segitzen dute.



Biztanleak: 24.257
Eremua: 33 Km²
Garaiera: 211 metro

Eguraldiaren aurreikuspena



OSTIRALA 17



LARUNBATA 18



IGANDEA 19

Goizeko lainoak desagertu egingo dira, egunak aurrera egin ahala. Tenperaturak gorantz egingo du.

Zerua orokorrean oskarbi egongo da eta temperatura igo egingo da. Haizeak Iparraldetik joko du.

Laino gutxi batzuk egongo dira. Tenperatura ez da aldatuko eta haize aldatokorra izango da.

Ilargia



Ilberria

Uzatailaren 23ean, osteguna, ilberria izango dugu.

Mezak

Parrokia

Larunbatean

19:00 (elebiduna)

Igandean:

09:00 (erdaraz)

11:00 meza nagusia (euskaraz).

12:30 (elebiduna)

San Frantzisko

Larunbatean

19:00 (elebiduna)

Igandean:

09:00 (euskaraz)

10:00 (erdaraz)

11:00 meza nagusia (euskaraz).

12:30 (erdaraz)

19:00 (elebiduna)

Uribarri

Larunbatean

19:00 (elebiduna)

Igandean:

11:30 (euskaraz)

12:30 (erdaraz)

San Andres

Larunbatean

19:00 (elebiduna)

Igandean

10:00 (erdaraz)

11:00 (euskaraz)

12:30 (erdaraz)

Santa Teresa

Larunbatean

19:00 (elebiduna)

Igandean


10:30 (erdaraz)

11:30 eta San Isidron (euskaraz)

12:30 (erdaraz)

Urkuluko uraren maila

%89,5



Distantziak

Arrasate

121	Baiona		
690	579	Bartzelona	
57	170	620	Bilbo
1.159	1.038	2.883	1.207 Brusela
72	50	529	119 1.088 Donostia
40	180	530	66 1.206 118 Gasteiz
107	120	437	159 1.180 92 99 Iruñea
391	519	621	395 1.556 469 351 407 Madril
864	743	1.113	911 296 792 910 884 1.260 Paris



LIZARRALDE

KIROLAK

Abentura atsegin duzunez,
eta naturaz gozatzeko,
presta ezazu zeure bizikleta
oporretarako



- Abuztuan goizez zabalik!
- Errepiderako eta mendirako bizikleta bereziak
- Bizikletaz ibiltzeko jantzi eta oinetakoetan espezializatuak
- Neskentzako jantzi bereziak

Foruen Plaza, 1-2 San Andres ARRASATE Tel.: 943 79 91 47

Olakua, 16 OÑATI Tel.: 043 79 20 96

17

ostirala

■ ZINEA

Washintong square, 22:00etan, Alai zinemán.

■ SANTAMAINAKO JAIK

Xake eta ping-pong txapelketak jokatu dira alkatetxean, arratsaldeko 15:30etan. 17:00etan marrazki txapelketa. 18:00etan auzoko umeentzako txokolatada, alkatetxean. 19:00etan ikurriñaren jasoera eta jaien hasiera etxafuego jau tiketa eta buruhandiek. 22:00etan tute txapelketa jubilatuen etxean eta 23:00etan dantzaldia Miramar orkestrarekin.

■ PORTASOLEKO JAIK

Aretxabaletako Portasol auzoko Lagun Elkarteak antolatuta, gaueko 21:30etan Araba etorbideko Techno Sun's txosnan DJak, Drag Queen sak eta Gogoak egongo dira. 05:00etan jaián bertan, txokolatea banatuko dute.

■ SANTA MARINA ARAMAION

Kanpai errepikak eta etxafuegoek emango diete hasiera Santa Marinako jai ei. 21:00etan bertso afaria egingo da.

18

larunbata

■ ZINEA

El gran Lebowski, 17:00, 19:30 eta 22:00etan, Alai zinemán.

■ SANTAMAINAKO JAIK

10:00etan diana: buruhandiek eta erraldoiek kalejira egiten duten bitartean, Bolo-Palma txapelketa hasiko da. 11:00etan umeentzako jolasak Makatzenako pistan. 13:00etan meza esango da Merceden, jubilatuen ome nez. 17:30etan motor lasterketa eta 18:30etan antzerkia Txikilandia taldearekin, Mentu plazan. 23:00etan, berriz, dantzaldia Carisma taldearekin. Gainera Ugarte eta Los Hermanos tabernetan gezi txapelketa jokatu da, arratsaldean.

■ AUTOBIDEAREN AURKA

Autobidearen aurkako kale agerraldia deitu dute Arrasateko AHTren aurkako Asanbladak, EHNE, Eguzki, Gatzaga-Landako herri ekimenak, HB, Zutik, LAB, ES, eta Debaldeko Gaztetxe eta Gazte Asanbladak. Herriko plazan bilduko dira, arratsaldeko 19:00etan.

■ SANTA MARINAK ARAMAION

Eguerdiko 12:00etan meza santua esango da. 12:45etan txirindulari igoera egingo da Aixolaraino. 13:15etan Vermouth dantza, trikitilari ek alaituta eta 15:30etan, kalejira trikitilari ekin, Aixolatik Arri xolara. 17:30etan mus eta briska txapelketa, nahi duten guz tzentzat, Aixolan. 19:30etan kanpai errepika lehiaketa eta 23:00etan goizalderarteko dantzaldia Eguzki taldearekin. 04:00etan txokolea eta berakatz zopa banatuko dira.

■ MUSIKA GAZTETXEAN

Berlingo Slac Jow taldeak joko du. Baita Garagartzako The Komandos Harrikara taldeak ere. Gaueko 22:00etan.

■ PORTASOLEKO JAIK

11:00etan trikitilarien diana eta 13:00etan familia arteko txikiteoa. 15:00etan XXVIII. mus txapelketa jokatuko da. 16:00etan haurren jolasak Gipuzkoako plazan eta 17:30etan txokolatada. 18:00etan buruhandiak eta trikitilariak aterako dira kalejiran. 23:00etan Sabor Tropical taldearen emanaldia Araba etorbidean.

19

igandea

■ ZINEA

El gran Lebowski, 17:00, 19:30 eta 22:00etan, Alai zinemán.

■ SANTAMAINAKO JAIK

Goizeko 10:00etan diana izango da eta Bolo-Palma txapelketaren jarraipena. 11:00etatik aurrera, umeentzako gaztelu puzgarriak. 11:30etan harri jaialdia, Mentu plazan. 12:00etan meza Mercedeko elizan, auzoko hildakoen alde. 12:30etan paella txapelketa Makatzenako pistan. 16:00etan umeentzako jokoak Agerre plazan. 16:30etan mus txapelketa; izen ematea ordu erdi lehenago izango da, JM tabernan. 17:00etan igela txapelketa Egipteko elkartean. 18:30etan dastapen herrikoia Zentru Extremeñoak antolatuta, Agerre plazan. Ordu berean, Kuklux fanfarrearen kalejira hasiko da. 19:00etan buruhandi eta erraldoien kalejira. 22:00etan dantzaldia Carisma orkestrarekin.

■ MAALAKO ERRABALA

Errabaleko jai en bezperan, auzoko hildakoen omenezko meza esango da San Franzisko elizan, eguerdiko 12:30etan. 13:00etan, berriz,

S. CARRASCAL S.L.

Guk egindakoak:

- Sukalde altzariak
- Armairu enpotratuak
- Trastelekurako armairuak

Fabrikari erakusketa

Gipuzkoa etorbidea, 6 - 1. a
Tel/Faxa: 943 79 01 82

Obstetrizia eta Ginekologia kontsulta
Serrano Doktorea

HAURDUNALDIA
AMNIOZENTESIA
ANTISORKUNTZA

MENOPAUSIA
BASEKTOMIA
BULAR PATOLOGIA

SAN MARTIN OSASUNDEGIA

Ramón M. Lili, 2 • BERGARA • Tel. 943 76 59 39 / 943 76 59 72 • Fax: 943 76 25 72

HIES
EKIMENA

Astelehen, astearte
eta ostiraletan
5etatik 8etara.

Tel.: 943 79 26 99

erretiratu guztientzako luntxa eskainiko da Plus-Ultra tabernan.

■ **PORTASOLEKO JAIK**

11:30etan esango dute meza San Lorentzon eta 12:00etan umeentzako marrazki lehiaketa egingo dute industrialdeko parkinean. 15:00etan Araba etorbidean, xake txapelketa jokatu da eta 17:00etan jaiei amaiera emango diote.

■ **SANTA MARINAK ARAMAION**

13:00etan meza esango da eta 13:45etan Aramaioko dantzarien saioa hasiko da. Ondoren, Vermouth dantza. 18:00etan umeentzako jolasen txanda izango da. 20:30etan, ostera, jaien amaiera.

20 astelehena

■ **ZINEA**

El gran Lebowski, 19:00 eta 21:30etan, Alai zineman.

21 asteartea

■ **ZINEA**

El gran Lebowski, 19:00 eta 21:30etan, Alai zineman.

22 asteazkena

■ **MAALAKO ERRABALEKO JAIK**

Goizeko 08:00etan jaurtiko dute jaiei hasiera emango dien etxafuegoa. Arratsaldeko 16:00etan umeentzako jolasak eta txokolatada antolatu dute. 19:00etan, trikitixa kalejira eta 21:00etan, auzo afaria Estradeta tabernan. Gaueko 22:30etan Gardoki taldearen emanaldia hasiko da. 23:30etan suzko erroberak egongo dira.

■ **DANTZA**

Lore Gazteak dantza taldeak saioa eskainiko du Monterongo parkean, 22:00etan.

■ **IRTEERA URKULURA**

Iturbide egoitzako erretiratuek Urkulura joateko aukera izango dute asteazkenean. Bazkalostean abiatuko dira Urkulura, arratsaldea hantxe pasatzeko.

23 osteguna

■ **ZINEA**

Perdita Durango filma, Monterongo parkean, gaueko 22:00etan. Sarrera 400 pta.

■ **GAZTEAK ETA KOMUNIKAZIOA**

Arrasateko Udaleko Gazteria eta Emakume sailek IX. Argazki lehiaketa antolatu dute, Gazteak eta Komunikazioa izenarekin. Argazkiak urriaren 9a baino lehen aurkeztu beharko dira

■ **ITSASOTIK ITSASORA**

Debagunek "Itsasotik Itsasora", gazteei zuzendutako bizikleta ibilaldia antolatu du abuzturako. Trenez Gironaraino joango dira eta ondoren bizikletan itzuliko dira Hondarribira. Berri gehiago AEDn izango duzue.

■ **FERRERIASKO JAIK**

Uztailaren 26an izango dira. Goizetik gauera bitarteko egitarau betearekin prestatu dute. Herri afarian parte hartu nahi dutenek txartelak dituzte salgai Ertz, Artea eta Aracelirenean. Aguro ibilii!

■ **JOKIN ZAITEGI ITZULPEN SARIA**

AEDk Jokin Zaitegi XII. Itzulpen Laburren saria antolatu du. Lehiaketa edozeinek har dezake parte. Gaia librea izango da. Munduko edozein hizkuntzatatik itzulitako idazlanak aurkeztu ahal izango dira. Testuaren luzerak gutxienez 15 eta gehienez 30 orrialdekoa izan behar du. Lanak aurkezteko epea urriaren 31ra arte. Lehen sarituak 200.000 pta. jasoko ditu, bigarrenak, berriz, 100.000

EROSKI BIDAIAK EROSKI BIDAIAK

Hau bezalako preziorik ez duzu ikusiko beste inon

MALLORCA

Uztailaren. 8 egun. Hotel ***
Pentsio Osoa.
Hegazkina Bilbotik.
Prezioa pertsona bakoitzeko

54.900 PTA. tik HASITA

3 hilabetez ordain dezakezu

1 Erakunde Aprobata

ZURE ERRESERBA EKAINAREN 30a BAINO LEHEN EGITEAGATIK Travel Clubeko 500 puntu "estra"

ViAJES EROSKI BIDAIAK

Prezio Onak baino gehiago

LARUNBATETAN arratsaldetik ere ireki egiten dugu EROSKI HIPERMERKATUETAKO bulegoetan

USTEAK USTE

Deiturak euskaraz

Euskaltzaindiak "Euskal Deituren Izendegia" argitaratu du, hamar mila abizen biltzen dituen liburua. Euskal deiturak euskararen idazkerara eta ohituretara egokitu nahi dituztenentzat gidaliburu fidagarria izan daiteke eta alde horretatik hutsune nabarmena beteko du.

Liburu honi esker, euskal deiturak euskal grafian jarri nahi dituzten herritarrek gauzak errazago izango dituzte aurrerantzean, ez dute eta eskatu beharrik izango Euskaltzaindiaren ziurtagiririk frogatzeko euren proposamena egokia dela.

AEDK orain bost bat urte ekin zion euskal deiturak euskal grafian jartzeko kanpainari eta harrezkero 600 arrasatearrek egokitu dituzte beren abizenak, elkartearen bitartekaritza erabiliz.

Liburu hau argitaratu ostean uste izatekoa da jende gehiago animatuko dela gauza bera egitera. Oraindik urrats dexente egin beharko dira, baina liburuaren eta AEDren laguntzari esker, lehen baino gutxiago.

Joxe Aranzabal



Eibar-Gasteiz: burugogorkeria

Mikel Olabe*

Gipuzkoako Foru Aldundiak Eibar-Gasteiz autobidea eraikitzeko hartu duen jarrera tematiak zentzugabekeria zentzugabekeriaren gainean baino ez du eka-ri hasiera hasieratik.

Euskal administrazioak erreta amaitu zuen Leitzaran proiektuan izan zuen oposizioarengatik eta, badaezpada, "proposamen berritzaile" bat iragarri zuen lau haizetara, NIPena alegia.

Espereintzia hark ez zuen fundamentuzko amaierarik izan. Emaitzak manipulatzan saiatu zirela eta, parte hartzaileek protesta ugari egin zituzten arren, azkenean emaitzak kaleratu gabe geratu ziren.

Behin betiko emaitza haiek zenbait arlotan ez zetozen bat administrazioaren proposamenarekin. Esate baterako, erabat gaitzeten zen Eibar-Gasteiz proiektuaren finantziarioa

bidesariaren bidez eta A-8ren kontzesioa luzatuz lortutako kapitala erabiliz egitea. Administrazioaren iritziz, baldintza hau ezinbestekoa zen proiektua aurrera ateratzeko.

Gipuzkoako Foru Aldundiak hiru arrazoitan oinarrituta saldu nahi izan digu lan *izugarri* hau: Europa zeharkatuko duen korridore berri baten premia, bailarako gaur egungo bide azpiegiturei irtenbidea ematea eta "aurrerapenaren trenari ihes egiten ez utzea".

Gaur egun, Europako Paris-Madril-Lisboa ibilbidea gure herrialdetik zehar

“ Arabako Foru Aldundia ez dago prest bere burua hipotekatzeko gipuzkoarren nahikari batengatik ”

igarotzen da eta, ildo horretatik, Europako komunikabideetan kokapen funtsezkoa dugu. Gure erkidegoa bi bide lasterrek zeharkatzen dute: N-1ek gaur egungo saihesbidearekin (Leitzaran-Irurtzun-Iruñea) eta bidesaria duten A-8 eta A-68 autobideek.

Miranda eta Donostiaren arteko distantzia 142 km.koa da N-1etik zehar eta 156 km.koa A-8 eta A-68 autobideetatik joanez gero.

Eibar-Gasteiz autobidea egiten bada, bitarte hori 132 km.koa izango da, hau da, N-1ekin alderatuta, 10 km. gutxiago geratuko dira eta A-8 eta A-68 autobideekin alderatuta, 24 km. gutxiago. Zertarako gastatu 100.000 milioi pezeta?

NIPetan, partaideei Donostiatik Gasteizera joan behar izanez gero zein aukera hartuko luketen galdetu zitzaie, bide lasterraren beharra neurtzeko. Hauek izan ziren erantzunak: N-1 errepeidea (%65); Eibar-Gasteiz autobidea (%24).

Baina kontua ez da horrela bukatzen. Orain esan digute korridore azkar hori ez dela lasterra izango Arlabanen. Hau da, joateko eta etortzeko bide bakarra baino ez duela izango. Zergatik? Bada, Arabako Foru Aldundiak ez duelako horren premiarik ikusten eta ez dagoelako prest gipuzkoarren nahikari baten-geatik bere burua hipotekatzeko.

* EKlko kidea

M A
ARENAZA
Altzariak
Diseinua
Apainketa
Bizkai, 1 • ARETXABALETA
Tel.: 943 79 08 07

BASABE JATETXEA
Menu eta afariak
Boda eta banketeak
Tel.: 943 79 91 84
ARETXABALETA

Lore
Lurrindegia
Olarte kalea, 10 • ARRASATE
Tel.: 943 79 52 50

ESKORIATZA


1 Langile bat hilda Ederlanen

Astelehen goizeko 11:00ak inguruan langile bat hil zen Fagor Ederlaneko biltegian, hainbat material gainean jausi zitzaionean. Hildakoa Fernando Eraña zen, 41 urteko eskoriatzarra. Hildakoaren emazteak ere Ederlanen egiten du lan, Informatika sailean. Seme bat daukate. Hau da aurten Fagor Ederlanen lan istripuz eraginda gertatu den bigarren heriotza. Lehena orain lau bat hilabete gertatu zen, fundizioan.

BERGARA

2 Angiozar LHTren aurka

Angiozarko auzotarrek hainbat alegazio aurkeztuko dituzte Lastertasun Handiko Trenaren aurka. Azken proiektuaren arabera, trenak Angiozarren izango luke geltoki bat. Auzotarrek, ordea, trena Epeletik zehar pasatzea eskatuko dute. Horretarako, sinadurak bilduko dituzte eta Bergarako Udalarekin batera, euren aldeko jarrera har dezala eskatuko diote Mankomunitateari.



OÑATI

3 Arrikruz 2000. urterako

Anjel Iturbe Oñatiko alkateak, Patxi Ormazabal Ingurugiro sailburuak eta Aitor Orbengoa Mondragon Sistemaseko zuzendariak Arrikruz leizean egingo den proiektu turistikoa aurkeztu zuten astelehenean. Oñatiko Udalak 230 milioi pta inbertituko ditu projektuan. 2000. urtean irekitzea espero da. Ordubetean leizearen inguruko hainbat

eko zuzendariak Arrikruz leizean egingo den proiektu turistikoa aurkeztu zuten astelehenean. Oñatiko Udalak 230 milioi pta inbertituko ditu projektuan. 2000. urtean irekitzea espero da. Ordubetean leizearen inguruko hainbat

toki ezagutuko dituzte bisitariek, enpresa arrasatearrak sortutako bitarteko informatiko berritzaileen bidez.

ANTZUOLA


4 Irinmondoren X. alea

Gaurostirala, Irinmondo urte-kariaren X. alea aurkeztu da Antzuolako udaletxean. Hamarkada betetzen duen honetan, aurreko bederatziazalen bilduma egin dute aurtengo azalean.

ELGETA

5 Ehiza txakurrak

Igandean, uztailak 19, ehiza txakurren lehiaketa egingo da Antzuategi baserriko zelaietan. Eskualdeko ehiza txakur onenak izango dira urtero antolatzen den lehiaketa honetan. Ikuskizuna ziurtatuta dago. Kiroldegiari dagokionez, bestalde, udalak onartu du dagoeneko kiroldegiaren kanpoko paretan eskalatzeko horma bat jartzea, nahi duten eskalatzaileek izan dezaten entrenatzeko leku aproposa herrian bertan. Aste honetan bertan jar liteke horma.



Parkeak:

- Poitiers-en asteburuak
- Paris-Frantses parkeak zirkuitua
- Port-Aventuran asteburuak

Zirkuituak:

- Cantabria
- Asturias
- Galizia
- Andaluzia
- Extremadura
- Port-Aventura

1998ko urrira arte

Kontzezino, 2 Tel.: 943 79 14 06

387 milioi udal pilotalekurako

Astelehenean egindako oso-ko bilkuran, Uarkapeko frontoiaren eraikuntza lanak adjudikatu ziren. Construcciones Amenabar enpresak eraikiko du udal pilotalekua, 387 milioi pta.ren truke. Herri Batasunak aurreko proiektua defendatu zuen, bere ordezkarien esanetan, herriko kirol talde guztien artean egindako proiektua baitzen eta zerbitzu gehiago eta hobeagoak eskaintzen bide zituelako. Ezker Batuko zinegotziak, aldiz, abstenitu egin ziren.

Frontoia girotzeko lanak, bestalde, desierto geratu ziren. Aurrerago ikusiko da zer egin horrekin.

Aldaketak aurrekontuan

Bilkura berean, hainbat aldaketa onartu ziren 98ko aurrekontuaren kredituetan. Hainbat partida berri sortu dira: Euskal Fondoari 525 mila pezetako partida ematea, herriko Gobernu Kanpoko Erakundeek dirulaguntza gutxituz. Autoen deposito berria egitea, 4 milioiko aurrekontuarekin. Irurok enpresari indemnizatzeke 2 milioiko partida sortzea. Eta azkenik, Ingurugiro zinegotziaren kargua batzordeko lehendakariaren parekoa egitea. Aurrekontuen aldaketak hirutariko gobernuaren eta PPko zinegotziaren aldeko botoekin onartu ziren.

Eibar-Gasteiz, hasteko gertu; Beasain-Durango, atzeratu

Aste honetan berri asko izan dugu Deba bailarekin zerikusi handia izango duten bi komunikabideren inguruan: Gipuzkoako Foru Aldundiak Eibar-Gasteiz autobidearen bigarren tartearan lanak onartu ditu; Beasain-Durango, berriz, 2009. urtera arte atzeratzea erabaki da.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Garraio Sailak onartu egin du behin betiko Eibar-Gasteiz autobidearen II. tartearan proiektua, Bergaratik Eskoriatzara doana, alegia. Hortaz, Eibar-Gasteiz autobideko lanak bi urte barru iritsiko dira Deba Garaira. Aurretik aurtan hasiko diren Maltzaga-Bergara lanak amaitu beharko dira, ordea.

Garraio Sailak baztertu egin ditu proiektu honen inguruan zeuden 57 alegazio. Zazpi, proiektu osoaren kontra eta gainerakoak arlo zehatzak jorratzen zituztenak. Alegazio hauek inguruko udalek, jabeek eta gizabanakoek jarriak ziren, proiektua erakusgai egon zen garaian.

Garraio Sailak adierazi duenez, osotasunaren kontrako alegazioak ez dira kontuan hartu, "oraindik ere behar-beharrezkoa delako Deba Garaia zeharkatuko duen ardatz laster bat egitea". Autobideak ingurugiro-



Eibar-Gasteiz autobideak hartuko du lehentasuna.

an izan dezakeen eraginari dagokionez, Garraio Saileko arduradunek esan dute 13,5 km.ko tunelak aurreikusi direla, eragina ahalik eta txikiena izan dadin. Arlabangoak 3 kilometro pasatxo izango litzuke. Sagastikoa, berriz, Etxezarreta baserri inguruko landareria salbatzeko egingo litzateke. Hau da, besteak beste, proiektuaren kosto handia azaltzeko diputazioko arduradunek eman duten beste arrazoi bat: ingurugiroa zaindu nahi dutela alegia.

KALE AGERRALDIA 18AN

Eibar-Gasteiz autobideak eztabaida franko sortu ditu bazterretan. Denak ez daude ados Gipuzkoako Foru Aldundiaren ikuspegiarekin. LAB, ESK, Ezker Sindikalak, HBk, Ekik eta Eguzkik kale agerraldia deitu dute datorren larunba-

terako, hilak 18, autobide honen kontra egiteko. Kale agerraldia Arrasaten bertan egingo da.

BEASAIN-DURANGO

Beasain eta Durango lotuko dituen bidea, bestalde, ez da bukatuko 2009. urterarte. Hau da bide honen proiektuak jasan duen bigarren atzerapena eta inportantearena.

Hasieran esan zen Beasain eta Durango lotuko dituen bidea 2000. urtean iritsiko zela Bergarara. Gero, atzeratu egin zen proiektua eta 2002.ean ailegatuko zela. Orain badakigu ez dela iritsiko 2009. urtera arte. Lehen Plan Orokorrean ez zitzaion lehentasunik eman, ordea. Ezta bigarren planean ere. Dagoeneko bi zati txiki ditu eginak: Epele eta Kanpazar lotzen dituen eta Beasain-Ormaiztegi.

AB Asesores-ek zuretzat aukeratu ditu...

munduko inbertsio fondorik onenak... fondo bakar batean

AB Fondos RV FIM

Dei iezaguzu 943 76 54 35 telefonora eta jakinaraziko dizugu.

Gutxieneko inbertsioa: 100.000 pta.

ABASESORES

Ondo inbertitzea denon esku dago

Santalaitz, 6

S. Lorenzo Industrialdea

Tel: 943 76 54 35

2570 BERGARA

<http://www.abasesores.es>

astea bi hitzetan

■ **MCC-Once hitzarmena**

MCCk eta Oncek hitzarmen garrantzitsua sinatu zuten joan den ostegunean Madril-en. Hitzarmenaren arabera, bi urteren bueltan MCCk 500 elbarri kontratatuko ditu. Erakunde biek prestakuntza ikastaroak antolatuko dituzte elbarrientzat. Baita kaleko jendea mentalizatzeko kanpainak ere. Bitariko batzorde bat sortu da hitzarmenaren jarraipena egiteko.

■ **Bai & By**

Arrasateko Hizkuntza Eskolak (HAIZKE) eta Bilboko Didaktiker enpresak hizkuntzak irakasteko proiektu berritzailea sortu dute: *Bai & By* izena du eta Bil-

boko eta Gasteizko zentru banatan garatuko da. HAIZKE Gasteizko zentruaren kudeaketaz arduratuko da. Didaktiker, berriz, Bilbokoaz. Hasieran ingelesa eta euskara ikasi ahal izango dira zentru hauetan, multimedia metodoak eskaintzen dituen abantaila guztiekin. HAIZKEk esperientzia jarriko du. Didaktikerrek, ordea, teknologia. Bien artean 300 milioi pta. ko inbertsioa egin dute.

■ **Ukraniarrek geurean**

Txernobilen Lagunak taldearen bitartez, 28 haur etorri dira Euskal Herrira. Arrasateko zenbait familiak taldeko zortzi haurrez arduratuko dira hurrengo asteet-

tan. Arrasateko Udalak ongietorria eman nahi izan zien haurrei eta asteartean ekitaldi berezia antolatu zuen udaletxean.

■ **Hezkidetzaren egitasmoa**

Udaleko Hezkuntza eta Emakume batzordeek bultzatuta, Hezkidetzaren programaren bigarren aldiari emango zaio hasiera datorren ikasturtean. Egitasmoaren helburua zera da: ikastetxeek sexuen berdintasunean oinarritutako hezkuntza planak lantzea. Iaz La Merced, Institutua, San Viator eta Almen ikastetxeak burutu zuten programaren lehen fasea. Irailetik aurrera, Erguin eta Musakolako herri eskolak eta Umezaintza hasiko dira.



INDUSKETAK LEZETXIKIN

EHUKO zientzilari eta ikasle talde bat indusketa lanak egiten ari da Lezetxikin. Eguraldiari esker, egun gutxitan iaz baino lan dexente gehiago egin ahal izan dute. Indusketak hilaren 25era arte egingo dira, Alvaro Arrizabalaga zientzilari oñatiarraren zuzendaritzapean. Auzolandegietako gazteek, bestalde, lan izugarria egin dute kobaren inguruetan: sasiak kendu eta bideak egin. Hori da orain artean egin dutena. Laster estalki bat prestatuko diete zientzilariei, lana patxadaz egin dezaten.



Ordua iritsi

da lan bazkide gehiago egin ditzagun. Testuingurua ezin egokiagoa da. Gure kooperatibek plantila orekatuak eta diru egoera osasuntsua dituzte; gure presentzia merkatuan finkatzea ezezik, areagotzea ere aurreikus daiteke, batez ere nazioartean; euroaren etorrerak eta EBEn sartzeak zerumuga egonkorragoa irekiko digute, non zikloak ez baitira hain nabarmenak izango; Lagun Arok enplegua sustatzeko duen funtsa ere superabiteria iritsi da eta horrek berme handiagoa eskainiko digu etorkizuneko premiei aurre egiteko”.




JESUS GOIENETXE

TU-Lankide,
1998ko ekaina



ERAIKUNTZAK ETA INDUSKETAK

Basabe Industrialdea 4, EQ- 11 • ARETXABALETA
Tel/fax. 943 79 01 51 • Mugikorra (908) 77 28 67 • Partikularra 943 79 74 26



IBABE GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa, z/g. Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE




UDALEKUAK ARKON

Txatxilipurdiko begiraleak jo eta fuego dabilta hil honetan oportetan dauden txikiak gobernatzten. Udaleku irekietan izena emandako umeek jolasten, lasterka egiten, abesten, margotzen..., eta beste hainbat gauza egiten pasatzen dute eguna. Batzuk ATB eta *Arrasate Press* ezagutzeko nahian, bisitan etorri zitzaizkigun. Goraintziak eta txintxo ibili!

KUKARATXA MOTELEKO IRABAZLEAK

Ekvador Bidaiak oparituta, Iker Reyes, David Horrillo eta David Lopez Port Aventura-ra joango dira irailean. Hirurak *Kukaratxa Moteleko* lehen finalaren irabazleak izan ziren. Beraz, asteburu bat han igarotzeko aukera izango dute. Gainera, Errukane Aperribai izango dute lagun. Guraso barik hobeto, eh?



BiRiBiL

**Edari eta tabakotan
espezialistak**

Zarugalde, 35 • Tel.: 943 - 79 09 53 • ARRASATE



Pavimentos AGR
AROSZTEGIA

Mota guztietako zoruak • Lijatu eta barnizatuak • Erradapiak • Leihoak • Ateak
Eskailerak • Armairu enpotratuak eta abar
MATERIALEN SALMENTA

Erakusketa eta biltegia:

Kale Txiki, 3 - behea • ARRASATE
Tel.: 943 77 11 20 • Faxe: 943 77 11 20

DENA AUTO

2. ESKUKO AUTOMOBILEN GIDA

ARRASATE PRESS eta BERRIGARAren, 2. eskuko autoen hilabetekaria.
1. zerbakia. 1998ko uztaila.
Komertziala: Nerea Lazpiur. Diseinua eta maketazioa: Iñaki Iturbe.
Tirada: 11.400 ale. Tf.: 943 76 03 97. Faxe: 943 76 29 77.

Dena Auto, 2. eskuko automobilen gida, Deba Garaiko erabilitako kotxeen gida duzu. ARRASATE PRESS eta BERRIGARA astekariek hilean behin argitaratuko duten gehigarria.

Lehen zerbaki honetan, Arrasate, Antzuola, Bergara, Eskoriatza eta Legazpiko auto saltzaileen 2. eskuko berebilen eskaintzaren berri izango duzu. Hurrengo zerbakietan, Deba Garaiko beste herrietako auto saltzaileek aukeran dituzten erabilitako autoen eskaintza egingo digute.

Orrialde hauek Bergara, Antzuola eta Arrasateko ia etxe guztietara helduko dira eta, beraz, **35.000 INGU-RU IRAKURLE**k izango dute Dena Autoren berri.

MARKA ETA MODELOA	MATRIK.	URTEA	EZAUGARRIAK	PREZIOA
AUTOLEYMA. Aitziturri 5. Bergara. Tf. 943 76 09 30				
Peugeot 806 ST 2.0			IZ, KE, LD, AG, Ispilu elektrikoak	Interesgarria
Peugeot 406 ST 1.8			IZ, KE, LD	Interesgarria
Peugeot 406 SVDT			Airbag bikoitza, LD, KE, IZ, KL	Interesgarria
Peugeot 306 XN 1.4			3 ate, kolore zuria	Interesgarria
Peugeot 205 Mito Diesel			IZ, KE, LD	Interesgarria
Peugeot 106 Sketch 1.1			3 ate, kolore zuria	Interesgarria
Peugeot 406 ST DT Break 1.9			IZ, KE, LD, AG	Interesgarria
Renault Twingo			3 ate, kolore granatea	Interesgarria
Renault Express Gasolina				Interesgarria
Citroën C-15 D				Interesgarria

BERGARA AUTOAK. Amillaga 10. Bergara. Tf. 943 76 04 58				
VW Golf GT-TDI	Berria	1994	KE, IZ, 5 ate	Interesgarria
VW Golf GT-TDI	Berria	1994	IZ, SE, IK	Interesgarria
Audi A4 TDI	Berria	1996	ABS, Airbag, KE, IZ, IK	Interesgarria
VW Transporter 2.4 Diesel	Berria	1994	LD, 5 plaza	Interesgarria
Renault Laguna Diesel Familiar	Berria	1996	KE, IZ, LD	Interesgarria
Audi 80 TDI Familiar	Berria	1993	AG, IZ, LD, IK	Interesgarria

AG: Aire girotua AH: Aleaziozko hagnak AL: Alarma BA: Balbula anitza IE: Ispilu elektrikoak HT: Hard top IK: Irrati-kaseta IZ: Itxigailu zentralizatua KE: Kristal-jasogailu elektrikoak KL: Kiimatizagailua LD: Lagunduriko direkzioa LGT: Lau gurpiletako trakzioa LK: Laino-kontrako argiak LKA: Laino-kontrako aurreko argiak NT: Narruzko tapizeria SE: Sapai elektrikoak



TX KN

Auto-errekabioak

Ibargarai 33, behea. BERGARA
943 76 29 95



AGUSTIN

Automobilaren karburazio eta elektronikak



Urizarri etorbidea 16.
Arrasate. 943 79 73 58

AUTO DESGUACES BERGARA



943 76 35 47 (desguazekoa)
943 79 76 33 (etxekoa)

BIGARREN ESKUKO PIEZAK
PNEUMATIKO BERRIAK ETA ERABILITAKOAK
GRUA ZERBITZUA



TXURRUKA AUTOAK S.L.

- Garajea
- Garraio zerbitzua
- Taxi zerbitzua

Aitziturri 5. San Lorenzo. Bergara.
Tf. eta faxe: 943 76 12 36.

MARKA ETA MODELOA MATRIK. URTEA EZAUGARRIAK PREZIOA

BERRIA GARAJEA. Amillaga 49. Bergara. Tf. 943 76 22 43

Opel Omega 2.0i GLS	Z-AJ	1990	AG, LD, KE, IZ, LKA, IK, Check Control, Ordenagailua	850.000
Audi 80 1.8 i E	SS-AB	1988	LD, KE, IK	750.000
Ford Mondeo 2.0 i Guia	SS-AP	1993	AG, LD, KE aurr./atz., IZ, LKA, ABS, Check Ctrl, Ord.	1.700.000

GURTZAIN GARAJEA. Almirante Bikuña z/g. Legazpi. Tf. 943 73 00 92 / 929 43 74 12

Opel Monterey 4x4	SS-AM	1992	Gris iluna, 90.000 km, Full equiped	2.700.000
Suzuki Vitara	VI-N	1993	Gorria, HT	1.300.000

ION AUTOAK. Amillaga 36. Bergara. Tf. 943 76 47 49

Opel Astra TDS		1996	4 ate, LD	Interesgarria
Fiat Punto 75S		1995	3 ate, Airbag	Interesgarria
Renault 21 1.7 Manager		1992	LD, KE, IZ	Interesgarria
VW Golf GTi		1989	3 ate	Interesgarria
Opel Corsa GSi		1991	Hainbat osagarri	Interesgarria
Citroën AX 1.1i		1994	5 ate, kilometro gutxi	Interesgarria

LENIZ GARAJEA. Aingeru ibiltokia 31. Eskoriatza. Tf. 943 71 50 61

Renault 19 TXE		1989	IK, AL	575.000
----------------	--	------	--------	---------

MUGARRI. Araba etorbidea z/g. Arrasate. Tf. 79 07 44

Ford Scort Nomade Ghia Di		1992	Hainbat osagarri	Interesgarria
Ford Scort CLX 16i		1993	Hainbat osagarri	Interesgarria
Renault R-19 GTD		1994	Hainbat osagarri	Interesgarria
Opel Vectra GT 2.0 i		1992	Hainbat osagarri	Interesgarria
Opel Calibra V-6 2.5i		1995	Hainbat osagarri	Interesgarria
Ford Probe V-6 2.5i		1994	Hainbat osagarri	Interesgarria
Nissan Patrol GR TDi		1994	Hainbat osagarri	Interesgarria
Peugeot 405 TDi		1992	Hainbat osagarri	Interesgarria

OLA TAILERRAK. Olabarrena z/g. Bergara. Tf. 943 76 47 74

Opel Vectra 1.7 TD	SS-AW		Bermatua	2.256.000
Peugeot 205 GT	BI-AY	1989	KE, IZ, LK, LD, IK	450.000
Citroën C15 D	SS-AB	1988	IK	450.000

AG: Aire girotua **AH:** Aleaziozko haguak **AL:** Alarma **BA:** Balbula anitza **IE:** Ispilu elektrikoak **HT:** Hard top **IK:** Irrati-kaseta **IZ:** Itxigailu zentralizatua **KE:** Kristal-jasogailu elektrikoa **KL:** Klimatizagailua **LD:** Lagunduriko direkzioa **LGT:** Lau gurgipiletako trakzioa **LK:** Laino-kontrako argiak **LKA:** Laino-kontrako aurreko argiak **NT:** Narruzko tapizeria **SE:** Sapai elektrikoa

MARKA ETA MODELOA	MATRIK.	URTEA	EZAUGARRIAK	PREZIOA
VW Golf TD	SS-AS	1994	Hainbat osagarri	Interesgarria
Audi 200 4x4			Full equiped	790.000
Renault 11 GTS	SS-Z	1987	KE, IZ, IK	185.000

SEAT UDALAITZ. Musakola z/g. Arrasate. Tf. 943 79 18 80

Opel Vectra 2.000 16V	SS-AK	1991	ABS, AG, IZ, KE	1.000.000
Ford Fiesta XR2i	SS-AD	1989	IK	475.000
Audi 90 2.3 Quatro	SS-AS		ABS, LGT	1.200.000
Citroën ZX 1.6 Aura	M-NZ	1991	AG, IZ, IK	975.000
Citroën C-15 Diesel	SS-AH	1990	IK	525.000
VW Passatt Syncro	SS-AM	1992	LGT, AG, IK	1.150.000
Ford Mondeo 1.8 16 V	SS-AP	1993	AG, IK, IZ	1.350.000

TXOMIN GARAJEA. Lizarraga auzoa 8. Antzuola. Tf. 943 78 70 77

Peugeot 205 Winer	SS-AM		IK	Interesgarria
Opel Kadett 1.6 GT	SS-AH		IK	Interesgarria

AG: Aire girotua AH: Aleaziozko hagnak AL: Alarma BA: Balbula anitza IE: Ispilu elektrikoak HT: Hard top IK: Irrati-kaseta IZ: Ibigailu zentralizatua KE: Kristal-jasogailu elektrikoa KL: Klimatizagailua LD: Lagunduriko direkzioa LGT: Lau gurpiletako trakzioa LK: Laino-kontrako argiak LKA: Laino-kontrako aurreko argiak NT: Narruzko tapizeria SE: Sapai elektrikoa

Zure konfiantzako tailerrak

**Prezio
URDINAK**



ANTZUOLA

▼ **Txomin Garajea**

ARRASATE

- ▼ **Auto Electricidad San Andres**
- ▼ **Muru Autoak**
- ▼ **Auto-Reparaciones Arrasate**
- ▼ **Ibabe Garajea (Peugeot)**
- ▼ **Ibarra Garajea**
- ▼ **Kataide Autoak (Fiat-Alfa Romeo)**
- ▼ **Kanpazar Tailerrak**

BERGARA

- ▼ **Markiegi Autoak**
- ▼ **Lagun Garajea**
- ▼ **Blanco Tailerrak (Nissan)**

ESKORITAZA

▼ **Leniz Garajea**

LEGAZPIA

- ▼ **Gabiri Garajea**
- ▼ **Gurtzain Garajea**
- ▼ **Legauto Norte 95 (Nissan)**

**Ez duzu
gure prezioak baino
hoberik!**





Prezio URDINAK

Tailer profesionalak

ESKAINTZA BEREZIA
PLUS BATERIA +
garantiarik haundiena



8.560
PTA-tik aurrera



ESKAINTZA BEREZIA
**OLIO ETA IRAGAZKI
ALDAKETA**



6.440
PTA-tik aurrera



ESKAINTZA BEREZIA
AMORTIGUADOREAK
2 urteko garantia



6.935
PTA-tik aurrera



ESKAINTZA BEREZIA
**BALAZTEN PASTILA
ETA DISKOAK**
DIAGNOSTIKOA BRAN



3.870
PTA-tik aurrera



ESKAINTZA BEREZIA
PNEUMATIKOAK
MUNTAIA 810 PTA



5.220
PTA-tik aurrera



ESKAINTZA BEREZIA
IHES-TUTUAK
Markarik onenak



6.265
PTA-tik aurrera



ESKAINTZA BEREZIA
SUPER ERREBISIOA
32 azterketa-puntu



6.845
PTA-tik aurrera



**Eska
ezazu**



**Eta eroso-eroso
ordaindu**





COMILLASEKO GAUDIREN KAPRITXOAN

Ekin emakumeen elkarteak, ikasturteari amaiera berezia eman nahian, bidaia antolatu zuen Kantabriara. Argazkiko emakumeek Cabarcenoko parkea, Santander, Santillana del Mar, eta Comillas ezagutu zituzten. Cares ibaiaren ibilbidea ere egin zuten. Bidaia zoragarria, lagunartean!

BAZKARI MUNDIALA!

Futboleko Munduko Txapelketekin bat eginez, Atxatarrak ere lau urtez behin elkartzen dira bazkari berezia egiteko. Ez du inork kale egiten egun seinalatu horretan. Aurten ere, nagusienetik hasi eta txikiraino, denak elkartu ziren. Meza Udalan eta bazkaria Gorlako elkartean egin zuten. Japonia-Korea 2002an elkartuko dira berriro ere.



beatriz

*oinetakoak
eta poltsak*

Erdiko kale, 11
Tel.: 943 79 14 33
ARRASATE

JUBAR

ATEAK. S.L.®

• BURDINAZKO ATEAK
• ETA PERTSIANAK.
• AUTOMATISMOAK.
• KONPONKETAK.

Kataide industrialdea, 18 • ARRASATE
Tel.: 943 79 10 20 • Fax: 943 79 08 17



BITTOR ZALDUNBIDE MALLABIA

86 urte

Uztailaren 13an hil zen,
Bilbon

Familiak eskerrik beroenak eman nahi dizkizue
elizkizunetan parte hartu duzuen guztioi

Goian bego



IRATI TABERNA

Ferrerias kalea • Tel.: 943 79 56 11
ARRASATE

Biribilak: trafikoari ie



Biribilek herri barruko trafikoa arindu dute. Baina oraindik autoilara handiak sortzen dira.

“**E**z dakit z e r egin. Autoa hartzen badut aparkatzeko arazoak izango ditut eta, ziurrenik, Udala plazan autoilarak izango dira. Baina nola joango naiz Uribe Auzotik Arbolapetara oinez? Ez, ezin liteke. Aurkituko dut txokoren bat nire Renault 5 zahartxoarentzat, hirigunean buelta pare bat egin behar badut ere”. Zalan-tzan zegoen mondragoetarrak zer egin du azkenean? Autoa hartu, jakina!

Arrasaten autoak arazo dira, bai aparkatzeko orduan, bai herri barruan mugitzeko: zirkulazioaren joana astuna eta istilutsua izaten da.

Orain urte batzuk Arrasateko Udalak biribilaren alde egin zuen apostu, trafikoaren

Urteetan ehundaka mondragoetar kexatu izan dira, herri barruan autoa hartzerakoan jasan behar zituzten autoilarak zirela eta. Gaur egun, zirkulazioa dexente arindu da Arrasaten. Duela lau urtetik gaurdaino, bost biribil egin dira herrian eta beste bi konpondu. Horrezaz gain, Udaleko Hirigintza sailak beste bi egiteko asmoa du. Antolakuntza berri honekin asko hobetu da trafikoaren joana herri barruan, nahiz eta oraindik ere zenbait tokitan autoilarak sortu. Dena den, mende berriari kukuka gauden urte hauetan, hiriei beste modu batera begiratzen hasteko ordua iritsi zaigu. Automobilak alde batera utzi, eta oinezkoen garrantzia azpimarratzeko garaia da.

Biribilak zer lortzen du?

- Zirkulazioaren antolakuntza hobea.
- Berezko antolakuntza.
- Autoen lastertasuna astirotea.
- Oinezkoei bidea zeharkatzeko lasaitasuna ematea.
- Kutsadura gutxitzea, autoek ez baitute arrankatu beharrik.

buruhausteei irtenbidea aurkitu guran. Eta gaur egun, herriari beste itxura bat eman diote biribilek. Itxura berria eta herri barruan mugitzeko beste era bat. Biribilek arindu egin dute zirkulazioa.

ARRASATE: AUTOAREN KULTURA

Arrasaten 9.281 automobil daude, auto bat hiru biztanleko. Juan Antonio Urdangarin Udaleko Hirigintza teknikariak dioenez, “orokorrean hiriak, espazio publikoa, autoen mesedetan eginak daude, baina Arrasateko kasua gehiegizkoa da. Autoaren kulturari bizi gara herri honetan. Beste herrietan buelta ematen ari zaio, baina hemen aurkako bidea egiten ari gara. Oinezkoak ahaztu egin ditugu, eta autoak jaun eta jabe dira”.

Autoak izugarritzko garrantzia izan arren Mondragoen, herria ez dago horrenbeste autorentzat prestatua. Piskana, neurriak hartzen ari dira gauzak arrazionalizatzeko, lur azpiko parkinak edo biribilak, esate baterako.

TRAFIKOA ERATZEKO BESTE MODU BAT

Arrasateko udaltzainek eta Hirigintza Sailak, buruhaustea ugari izan dituzte urteetan herri barruan sortzen ziren trafiko ilarak zirela eta. Azkenean, lau bat urte dela, konturatu ziren bidegurutzeak kontrolatzeko irtenbiderik egokiena biribilak zirela. Helburua, ahal den neurrian behintzat, zirkulazio argiak saihestea izan da, semaforoek trafikoak oztopotu egiten bai-

enbidea bilatu nahian

tute. Biribilak, berriz, zirkulazioaren berezko antolakuntza dakar.

Horrela bada, herria hankaz gora izan dugu hilabeteetan, bost biribil berri eraikitzen zebiltzala eta. Orain, ostera, auto gidariek nabaritzen dute zirkulazio lasaiagoa. Hala ere, biribilak egiterakoan autoez gain, oinezkoak ere hartu dira kontuan.

BIRIBILEN DISEINUA

Biribilak egiteko orduan zenbait gauza hartu behar izaten dira kontuan. Lehena da trafikoa ongi zuzentzea, baina oinezkoek eta apainketak ere, badute garrantzirik. Juan Antonio Urdangarin Hirigintza teknikariak dioenez, "biribilak ez du zerikusirik oinezkoen kulturari, baina beste gauza bat da diseinuan oinezkoak kontuan hartzea. Mondragoeko biribiletan, batzuetan, San Frantzizkokoan bezalaxe, lehentasuna eman zaio oinezkoen mugimenduari, eta horren arabera egin da gainontzekoa. Maalakoa ordea, desbideratu egin da oinezkoen pasabidea, autoen alde."

Bide batez, biribilak egiterakoan herria apaindu nahi izan dute. Biribil dotoreak ditugu Mondragoen, iturriz eta lorategiz hornituak.

UDALTZAINAK POZIK

Herriko trafikoaz jakitunenak udaltzainak dira, dudarik gabe. Eurak dira, trafikoaren gorabeherak gehien jasan behar izaten dituztenak. Eta pozik daude biribilek herriari emandako antolakuntza berriarekin. Antxon Fernandez udaltzai-



Mondragoen automobilak dira nagusi herria antolatzerakoan, oinezkoen gainetik.

"Arrasaten autoaren kulturari bizigara. Oinezkoak ez ditugu kontuan hartzen. Autoek dute garrantzia eta nagusitasuna".

Arrasateko biribilak: 300 milioi pta

NON

NORK EGINAK

- Santa Marina Arrasateko Udala
- San Frantzizko Arrasateko Udala
- Maala Arrasateko Udala
- Takolo Gipuzkoako Foru Aldundia
- Eroski GFA eta Arrasateko Udala
- Muxibar Arrasateko Udala
- Udala plaza Arrasateko Udala
- Foruen plaza* Arrasateko Udala
- Kontzeziñoa* Arrasateko Udala

* Etorkezinerako asmoak

nak kontatzen du "alde handia dago zirkulazioa biribilekin zuzentzen hasi garenetik. Auto mugimendua izugarri arintzen dute. San Frantzizkoko eta Takoloko biribilak dira punturik nagusienak. Baina oraindik ere badago zer eginik. Udala Plaza oraindik ere arazo larria da".

Autoei irtenbide berria eman zaie biribilekin. Baina Arrasate oraindik automobilaren menpe dago. Hirigintza teknikariaren ustez "Arrasate oso oso autoaren aldekoa da, eta hori konpontzeko bi irtenbide daude: autoen aurkako politika eraginkorra aurrera eramatea edo oinezkoen alde jokatzea."

Naiara Gorroño ■

EUGENIO IBARZABAL (KOMUNIKATZAILEA)

“Galdera beti da bera: je

Eugenio Ibarzabal Iceberg Prospectiva enpresarekin batera, hobekuntzaren inguruan ari da lanean azken urteotan. Gure lanean, gure prestakuntzan eta gure inguru-nean hobetzeko arlo mentala garatzea beharrezkotzat jotzen du donostiar honek. Joan den astean Almen ikastolan izan zen. Pertsonaren hobekuntzaren inguruko mintegia eskaini zien irakasleei. Gu berarekin mintzatu ginen, hobekuntza hori zertan den jakin nahian.

— Irakasleentzako mintegia eskaini zenuen Almenen. Zeri buruzkoa?

— Askotan esaten dugu geure aberastasunik handiena pertsonak direla, baina azkenean, badirudi ez dakigula zer egin horrekin eta nola hobetu. Mintegia horri buruzkoa izan da.

— Arloren bat gehiago lan-

du behar da?

— Bai, buruari dagokiona. Beti ari gara pentsatzen, baina askotan tontokeriak besterik ez dira izaten pentsatzen ditugunak. Ikasi egin behar dugu pentsatzen, tokia egin behar diegu beste pentsamendu mota batzuei. Orain arte jendea beldur zen gauza hauetan sartzeko, pentsatuz erlijioaren eta moralaren kontuak zirela. Baina hori ere ez da, nahiz eta zerikusirik izan.

— Nola ikusten dituzu inguru-etako enpresak?

— Gainditu gabeko ikasgairaren bat baldin badugu, hobekuntzarena dela esango nuke. Organizazio guztietan gauza bera gertatzen da. Hala ere, geroz eta aukera gehiago daude eta

esperientzia aldetik ere hasi gara fruituak jasotzen. Askotan pentsatzen dugu arazoa lehiakortasuna dela, baina horrekin batera elkarlana izan behar da kontuan, hor baitago hutsunea. Ez dakigu nola aritu elkarlanean.

— Hezkuntzan ere gauza

bera gertatzen da?

— Eskolan, irakasleen eta ikasleen artean ere gertatzen da, bai. Uste dut lau arlo hobetu beharko liratekeela: apaltasuna; zentzua, hau da, nora jo behar duzun; denbora ondo aprobetxatu beharra eta talde-lana.

— Beste proiektu batean ere ari zara?

— Foro Gipuzkoa XXI programan, Kutxa, Elkargi, Adegia eta EHUrekin batera, hobekuntza irakaskuntzan lantzen. Orain Bergarako Lanbide Eskolak ISO 9002 lortu du —lehenengoa, Tolo-sarekin batera—. Unibertsitatean bi hobekuntza talde ditugu eta bost udalekin lanean hasi gara. Beti sare batean sartuta, beti elkarrekin, hori baita bidea.

— Euskaldunok badugu gauzak ondo egite-

“Gerra zibil asko izan ditugu geure artean eta gauza horiek pentsarazi egin behar digute”

“jendea nola motibatu”

ko borondaterik?

— Mito asko dago eta hor bazkariekin gertatzen dena gertatzen da; uste dugu gurea onena dela eta aldamenekoen kaskarragoa. Baina oso zaila da *gehiago* edo *hobeto* esatea, ez daukagu erreferentziarik eta. Euskal Herrian, beste leketan bezala, hutsune hori dago. Galdera beti da bera, “jendea nola motibatu”.

— Zer gogoratzen duzu kazetaritzan egindako lanetik?

— Jendea ezagutzeko aukera ikaragarria izan zen. Kazetaritzak arlo asko lan-

tzeko aukera eman zidan. Hala ere, garai hartan ez genuen aukera horiek horrenbeste estimatzen. Gero gogoratzen zara. Bestetik, horren presaka ibiltzen gara, ez dugula ikasteko ere astirik izaten, eta hor dago kokxa.

— Zer deritzozu nazionalismoen inguruan sortu den eztabaidari?

— Ez dakit urriaren 25ean zer gertatuko den, baina giroan nabaritzen da nahigabe bat eta bestearen kontrako tentsazio bat. Nazionalismoaren esparruan jendea oso kezkatua dago. Besteak ez dira kon-

turutzen zer nolako mina sortzen ari diren eta beharbada, abertzaleak ere ez dira konturutzen beste aldean zer nolako mina sortzen ari den. Horrek zer ondorio ekarriko duen ez dakigu, baina onak ez, ziur. Kontuan izan behar dugu beste gauza bat: gure herrian bi karlistaldi izan ditugula eta pentsatu behar dugu ez ote garen hirugarren karlista gerrate bat prestatzen ari. Guk gerra zibil asko izan ditugu gure barrenean eta gauza horiek pentsarazi behar digute.

— Zelan ikusten duzu denon ahotan dabilen Euskal

Herriaren bake prozesua?

— Aurrerapausoak eman-go dira. Oso ezkorra izan naiz beti, baina orain baikor nago. Momentu txar batean gaude, baina leku guztietan bezala, aterabide bat emango da. Hurrengo legegintzaldian gauza asko gertatuko dira. Abertzale bezala, beti egon naiz oso kezkatua gauza horiekin. Gero eta gehiago zabalagoa ari da sortzen, baina gorroto asko dago hemen. Gorroto hori esplikagarria da eta etorkizunari begira hori aldatzea ez da bat ere erraza izango. Eran-tzuna denon artean eman behar dugu. ■

Loramendi kirolak

11.450 pta
Goretex

10.995 pta

4.995 pta

9.995 pta

TRAVEL

gure oporretarako material guztia

Abuztuaren goizez zabalik

Fagorretik Ulma-Cegasa taldera

IVAN VELASCO

“Bidasoako itzulian ibiltzea gustatuko litzaidake”

— Fagorretik Ulma-Cegasa taldera. Gustura zaude?

— Bai; orain entrenatzen gaituen Jose Luis Fernandez izango da talde berriko zuzendaria.

— Zer eskaini dizute?

— Bi urterako egingo dute taldea. Gure taldetik Asier Atxa eta biok joango gara. Taldekide guztiak gazte mailatik igotako txirrindulariak izango gara.

— Honelakorik espero zenuen?

— Aurten azken urtea zen. Hala ere, ez nuen espero honelako talde batek eskaintza egitea.

— Aurtengo denboraldia nola joan da?

— Beno, tira. Errioxako txapelketan hirugarren tokian gelditu nintzen eta bosgarren Egian. Bestela, ez dut emaitza oso onik izan. Gainera, eroriko asko izan ditut.

— Zein izango da zure helburua datorren denboraldian?

— Bidasoako Itzulian aritzea gustatuko litzaidake.

— Nola dago gazte mailako txirrindularitza?


— Nahiko maila ona dago gazte mailan. Amateur mailan, berriz, lehia handia dago, ia profesional mailan bezala.

— Lasterketa bat irabazi edo denboraldi ona egin?

— Nik nahiago dut emaitza onak izan denboraldi osoan zehar.

— Nork irabaziko du Tourra?

—Ulrichek. Nahiago nuke Olanok irabaziko balu, baina...




TXIRRINDULARITZA Zazpigarren Zamoran



Zamorako itzulian izan ziren Born Jay taldeko txirrindulariak. Joan den asteartean hasi eta igandera arte iraun zuen itzulian, zazpigarren tokian amaitu zuen Born Jay taldeak. Guztira 19 talde aritu ziren eta adierazi digutenez, nahiko gustura gelditu dira, espero bezala amaitu zuten eta. Gainera, azken aurreko etapan Jon del Rio zazpigarren izan zen eta azken egunean, berriz, David Sojo 8. tokian sartu zen.

Gertuago jokatu zen lasterketan ere ibili ziren Born Jayko mutilak. LIII. Antzuola Saria-VII. Iñaki Lete Memoriala lasterketan hartu zuten parte igandean. 218 txirrindulari izan ziren irteeran eta 132 baino ez ziren helmugaratu. Born Jaykoak ere, seitik bostek amaitu zuten ibilbidea, guztiak tropelean sartuz. Garaipena, Caja Rural taldeko Jon Bruk eskuratu zuen.

PILOTA Partidak Makatzenan



Makatzenako eskuz binakako pilota txapelketan benjaminen artean jokatu zituzten hirugarren eta laugarren tokiak. Ormaetxea eta Bolinaga gelditu ziren hirugarren eta Urrutia eta Perez, berriz, laugarren. Datorren asteartean benjamin eta alebinen final erdiak jokatuko dira.

Aramaion ere amaitu da aurtengo pilota denboraldia. Asteburuan bigarren mailako profesionalen norgehiagoka bi jokatu ziren. Lau t'erdia-ren barruan, Ansotegi eta Errandonea II. aritu ziren.

Errandoneak 22 eta 20 irabazi zion Ansotegiri. Partida hau gainera, ordezkoko pilotariak jokatu zuten, hasiera batean Oregi II.ak eta Legorburuk jokatu behar zuten eta. Eskuz binaka, Zabala-Alonso 22 eta Esnal-Badiola 14 bukatu zen. Hemen ere aldaketak: bi atzelariak ordezkokoak izan ziren.

IGERIKETA Zeharkaldiak asteburuan



Arrasateko igerilariek klasiko bihurtu diren bi zeharkalditan hartuko dute parte. Larunbatean Getaria eta Zarautzen artean egiten dena izango dute. Datorren astean, berriz, Ondarru eta Saturraranen artean izango dira.

SQUASH Gorosabel garaile



Arrasateko Squash Taldeak opor aurreko azken txapelketa bukatu zuen hil honen hasieran. Maiatz eta ekainean zehar Deba Garaiko Squash Ranking txapelketa jokatu aritu dira 21 jokalarik. Garaipena Jose Gorosabel mondragoetarrak lortu zuen. Bigarren, Garikoitz Ibarzabal oñatiarra gelditu zen eta hirugarren, berriz, J. Antonio Varilla aretxabaletarra. Arrasateko Squash Taldean herriko eta Aretxabaletako jokalariek ari dira. Irail aldera Aretxabaletan antolatu nahi dute squash txapelketa. Momentuz, ordea, itxaron egin behar dute squashzaleek eta entrenatzen segitu, Aretxabaletan txapelketa egiteko arazoak izan daitezke eta, leku eskasiagatik.

Anoetako txapelak jokoan

Jonathan Perez hirugarren gelditu zen Anoetan jokaturako Gipuzkoako txapelketan. Perezek 3,60 m.ko jauzia egin zuen pertikaz. Hala ere, mondragoetar honek 4 m.ko jauzia egitea lortu du denboraldi honetan eta horri esker, Espainiako txapelketan izan zen orain dela gutxi. Asteburuan brontzezko garaikurra ekartzea lortu zuen.

Unai Sarabia eta Felix Sanchez ere izan ziren Anoetan, Arrasate Kirolak Atletiko Taldea ordezkatzuz. Sarabiak 100 m.ko lasterketan hartu zuen parte eta seigarren tokian gelditu zen. Sanchez oñatiarra, berriz, bosgarren izan zen 800 m.ko lasterketan. Sanchezek hirugarren aldiz lortu zuen bi minutuetatik jaistea. Hala ere, oraindik ez du 1,59 hobetzea lortu.



Jonathan Perez.

Jose Mari Saizen omenezkoa



Jon Sanabria, gazteenetan eta Jose Maria Migelez, beteranoetan, saritu zituzten.

Joan den igandean Jose Mari Saiz III. memorialekin egin zen. Deba Garaiko Txirrindulari Taldeak 127 txirrinduzale bildu zituen Arrasaten, orain dela zenbait urte auto batek harrapatuta hil zen Jose Mari oroitzeko. Eguraldi aparte izan zuten, nahiz eta azkenerrako bero ere pasa zuten parte hartzaileek.

AZKEN ORDUKO ALDAKETA

Igandekoa aspaldi antolatutako irteera zen arren, Oñatin jokatu beharreko auto lasterketa batek txirrindularien ibilbidea aldatu beharra ekarri zuen. Hasiera batean txirrinduzaleek Udana igotzea zegoen pentsaturik. Azkenean, ordea, Udanan auto igotzea zegoela eta, ibilbidea aldatzea erabaki zuten eta Des-

kargatik zehar abiatu ziren Azkoitira. Handik, Azkarako mendatea igaro ondoren, berriz ere Arrasaterako bidea hartu zuten.

KANPOTARRAK GARAILE

Leku askotako txirrindulariak bildu ziren Eroski parean zegoen irteeran. Honela, Valladolidetik etorritako txirrindulari bat ere aritu zen. Jose Luis Jimenezek, asteburua pasatzera etorri zela eta, irteera zegoela jakin bezain laster, parte hartzea erabaki zuen. Azkenean gainera, berak lortu zuen garai-pena eta jakin genuenez, espero ere ez zuen egin lehengo tokian amaitzea. Txirrindulari beteranoarentzako saria Jose Maria Migelezek eskuratu zuen. Migelezek urteak daramatza bizi-

kletan ibiltzen eta nahiz eta gustura zegoen lortutako sariarekin, gertaera normaltzat jo zuen. Txirrindulari gazteenarentzako saria Jon Sarabiak eskuratu zuen. Bi hauek, Eskoriatzako txirrinduzale taldeko txirrindulariak dira. Eskoriatzako taldea izan zen gainera, txirrindulari gehien ekartzeagatik aurreikusita zegoen oroigarria eskuratu zuen taldea.

ASTEBURUKO IRTEERA

Datorren igandean ere irteera egingo dute txirrinduzaleek. Arrasaten atera eta Gortia, Elusu, Azkotia, Loiola, Azpeitia, Landeta, Santa Engratziko mendatea, Aizarna, Etumeta, Azkoitia eta Bergararik pasa ondoren, Arrasatera itzuliko dira. Guztira 108 km.



AGUSTIN

Automobilaren karburazioa eta elektronika




Uribarri Etorbidea, 16 • ARRASATE • Tel.: 943 79 73 58



- Garbitasun orokorrak eta mantenimendua: etxebizitzak, atariak, dendak, bulegoak, kristalak, etab.
- Edozein zoru motari dizdira ateratzea.

Santana auzoa, 4 etxabea Tfnoa: 943 71 48 45 ESKORIATZA

Mediterraneotik Bizkaiko Itsasora bizikletan

Eguzkia Mediterraneo itsasoan nola jaiotzen den, eta Bizkaiko Itsasoan nola ezkututzen den ikustea gogoko izango bazenu, oporretarako plana proposatuko dizugu.

Abuztuan bizikleta pres-tatu, gogoia zorrotan sartu eta tira... *Itsasotik Itsasora* joan zaitezke.

UDARAKO PLANA

Uda honetarako Debagunek, Deba Bailerako Euskara Taldeen elkarteak, Mediterraneotik Bizkaiko Itsasorainoko bizikleta bidaia antolatu du.

Bizikleta ibilaldi honek hirugarren urtea du dagoeneko. AEDko arduradunek adierazi digute asmoa: "oraindik oporretarako planik ez dutenek primerako aukera dute, bizikleta gogoko izanez gero. Euskal giroan abentura txikia bizi ahal izango da. Printzipioz gazteei zuzendua bada- go ere, adin esparrua zabala da. Sasoi ongi dagoen edo- nor etor daitezke".

ABENTURA BIZIKLETAN

Beraz, abuztu hasieran baila- rako talde batek trena hartu-

ko du eta, txirrindu eta guzti, Llançarantz, Gironara, abia- tuko dira. Hemendik aurrera, trenetik jaitsi eta bizikletan hasiko da abentura. Hondarribira iritsi arte makina bat joan-etorri bizitzeko aukera izango da.

Hasierako asmoa hama- bost eguneko bidaia egitea da. Baina luzatu egin daitezke, eguraldiaren arabera. *Itsaso- tik Itsasora* ibilaldia egin ahal izateko ez dago zertan Miguel Indurain izan, baina jakina!, ezinbestekoa da sasoi onean egotea.

Egunean 80 bat kilometro egiten dira batez beste.

Oraingoz zazpi pertsonak eman dute izena, eta animatu- ko bazina, hilaren 20ra arte duzu epea AEDn izena emateko. Txangorako ez dago ezer ordaindu behar, norberak bere poltsotik jarriko du ibilaldian behar duen dirua. Talde han- diagoa egingo balitz, furgone- ta bat jarriko litzateke. Horre- la trasteak autoan eramango lira- teke, eta ez zorrotan.

IZAR AZPIAN LOTAN

Bizikleta ibilaldi honetan para-



Uztailaren 20ra arte dago zabalik epea AEDn izena emateko

je eta leku ikusgarriak eza- gutzeko aukera izaten da. "Egun bakoitza istorio berri bat, egunero dago harritzen zaituen zerbait", esaten dute antolatzaileek.

Gauak izar azpian igaro- ko dira: eliza aterpeetan, las- tategietan... Ilunabarrak txi-

rindulariak harrapatzen dituen txokoan, horixe izan- go da ostaturik aproposena.

Beraz, badakizue. Bizi- kleta gogoko baduzue, Medi- terraneoan hasi eta Bizkaiko Itsasoan amaitzeko aukera ona, *Itsasotik Itsasora* bizi- kleta ibilaldia.

ARRASATEKO EUSKAL DANTZARIEN ERAKUSTALDIA



Uztailak 22
Gaueko 22:00etan
Monterronen

(Eguraldi txarra egitekotan Amaia Antzokian)

Sarrera: 500 pta.
Gazte txartela dutenek edo Dantzari
Federatuek 300 pta.



JON RUIZ DE ZARATE, ARGAZKILARIA

“Izugarrizko gogoia nuen Cerrajera barruan egiten zen lana ezagutzeko”

“Serrajerria” izeneko argazki erakusketak, Mondragon Hotelean jarri duenak, arrakasta handia izan du. Askok orain ezagutu dute bere lana. Baina txikitatik datorkio argazki zaletasuna Jon Ruiz de Zarate mondragoetarrari. Lehen jaunartzeko egunean ere argazki makina bat oparitu zioten. Ez zen harriztekoa, hortaz, maisutza industrialeko ikasketak amaitutakoan trasteak hartu eta Bartzelonara joan izana. Gaur egun izan nahi duena da: argazkilaria.



— Zer da zuretzat Union Cerrajera?

— Gauza asko. Nire aitaitak hor egin zuen lan eta ni ere hor ondoan bizi naiz. Kanpotik baino ez nuen ezagutzen eta niretzat Cerrajera adarra zen, lanean sartzeko eta irteteko jotzen zuten adarra. Izugarrizko gogoia nuen han barruan egiten zen lana ezagutzeko.

— Nola bururatu zitzaizun Union Cerrajerari buruzko erakusketa egitea?

— Betidanik ezagutu dut hor Cerrajera eta esan dezaket nire bizitzako argazki erreportajea dela. Arrasateko historiaren zati bat. Jakinda desagertu egin behar zela, gogo handiagoak izan nituen egiteko. Lau urte egin ditut argazki horiek ateratzen. Bartzelonara joan aurretik eskatu nituen baimenak. Argazki gehienak, beraz, opor garaian atera nituen.

— Zergatik egin zenituen argazki guztiak zuri-beltzean?

— Gaiak eskatzen zidan. Koloretan egin izan banu, beste zentzu bat izango zukeen. Zuri-beltzak beti islatu ditu ondo pasatako gauzak. Kasu honetan gainbehera, tristura eta halako sentimenak. Hala ere, horrek ez du esan nahi zuri-beltzak beti ispilatzen dituenik sentimen horiek.

— Kolorea ala zuri-beltza?

— Zertarako den. Gai batzuek kolorea eskatzen dute eta beste batzuek zuri-beltza, transmititu nahi duzunaren arabera.

— Maisutza industrialeko ikasketak bukatu eta argazkigintza ikastera joan zinen Bartzelonara. Zergatik?

— Maisutza industrialeko ikasketekin nire bizitzaren aldi bat bukatu zen. Orduan apustua egin nuen neure buruarekin, argazkigintza modu profesionalean ezagutzeko eta Bartzelonara joan nintzen. Hori ez zen hutsetik sortu, jakina, etxean ere ezagutu dudalako zaletasun hori.

— Arrasateko kronikagile bihurtuko zara, irudi bidezko kronikagile?

— Ez dakit. Izan ninteke. Hori denborak esango du. Oraingoan, dena den, aguro da ezer esateko.

— Zer motatako argazkigintza lantzen duzu?

— Batez ere enkarguzkoa lantzen dut: publizitatea, argitalpenak, erretratuak.... Astia dudanean, berriz, neure lanak egiten ditut.

aste gazte

■ DIRU LAGUNTZAK

• Leonardo da Vinci programak, atzerriko enpresetan lan praktikak egiteko aukera ematen du, ikasketen azken urtea edo ikasketak bukatu berriak dituzten pertsonentzat, beti ere lan esperientziarik gabekoak izanez gero. Izena emateko epea: uztailak 30.

• Atzerrian 98-99 ikasturtean edo 99ko udan zehar ikasketak burutu edo ikerketak egiteko hainbat diru laguntza; Suitza, Israel, Norvegia, Austria, Belgika, Finlandia, Grezia, Hungaria, Polonia, Portugal, Erresuma Batua, Errumania, Errusia, Turkia, Bulgaria, Txekia, Frantzia, Irlanda, eta beste hainbat lekutarako eskaerak egiteko epe desberdinak daude. Galdetu.

■ LANA

• Ultzamarako gizarte langile bat behar da. Epea: abuztuak 8.

• Arrasateko Udalak, aukera berdintasunerako agente edo emakume teknikari postua bete eta estaziomanenturako zaintzaileen lan poltsa osatu nahi du. Epea: uztailak 22.

■ LEHIAKETAK

• “Emakumeak kontari” literatura lehiaketa, Bilboko Udalak eratuta. Gai librean eta mintzaira ez sexista erabiliz, gutxienez 5 orri eta gehienez 12 orriko lanak aurkeztu behar dira. Epea: irailak 30.

• Juantxu Rodriguez argazki lehiaketa, Portugaleteko Margen taldeak antolatua. Argazkiak, gai librean. Epea: azaroak 13.

Berri gehiagorako:
GAZTE ZERBITZUA
☎ 77 00 65

“Batez ere enkarguzko argazkigintza lantzen dut”

ETXEBIZITZAK

1. Saldu

- Etxebizitza salgai Bizkaia etorbidean. Tel.: 943 79 22 92.
- Etxebizitza salgai Gipuzkoa Etorbidearen 35ean, Arrasaten. Tel.: 943 79 20 72/943 79 36 84.

3. Errentan emateko

- Ikasleei alokatzeko etxebizitza Caceresen. Jantzia dago eta hirigunean. Tel.: 943 79 92 90.
- Etxebizitza alokatzen da Erguinen, ikasle edo antzekoei. Merkea. Hiru logela ditu. Tel.: 943 79 66 92.

- Uztail, abuztu eta irailerako etxebizitza eta bungalow-ak alokagai ditugu Oropesan. Interesatuak deitu 964 31 08 55 telefonora. M^a Angeles Elizondo.

4. Errentan hartzeko

- Senar-emazteek etxebizitza alokatu nahi dute Arrasaten. Tel.: 943 79 75 34.
- Etxebizitza hartuko genuke alokairuan Arrasaten. Tel.: 945 45 01 80. Urzi. Deitu asteburuetan.
- Ikasle batzuek lau logelako etxebizitza hartuko genuke alokairuan. Tel.: 943 55 44 65.
- Ikasle batzuek etxebizitza alokatuko genuke Arrasaten. Tel.: 943 79 84 40. Astegunetan deitu. Gorka.
- Etxebizitza behar dugu Arrasaten. Tel.: 945 24 07 01.
- Hiru ikaslek etxebizitza hartuko genuke alokairuan Arrasaten. Tel.: 943 88 97 16. Agurtzane.
- Etxebizitza behar dut Arrasaten, lan tokiz aldatu dudalako. Tel.: 943 78 91 10. Dorleta.
- Karrera bigarren maila egiten ari diren lau neska arduratsuk etxebizitza alokatu nahi dute Arrasaten. Egoera oneko etxebizitza nahi dugu. Elgoibar. Tel.: 943 74 10 74. Bidatz.
- Neska batek etxebizitza bat alokatuko luke Arrasaten. Tel.: 943 79 88 13. 22:00etatik aurrera.

5. Etxe konpartituak

- Gela baten bila nabil etxe konpartitu batean, Arrasaten. Tel.: 929 96 85 87. Juanjo.

ETXEBIZITZAK

1. Saldu
2. Erosi
3. Errentan emateko
4. Errentan hartzeko
5. Etxe konpartituak
6. Bestelakoak

GARAJEAK

7. Saldu
8. Erosi
9. Errentan emateko
10. Errentan hartzeko
11. Bestelakoak

LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

13. Erosi
14. Errentan emateko
15. Errentan hartzeko
16. Bestelakoak

LANA

17. Eskaintzak
18. Eskaerak
19. Bestelakoak

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak
21. Eskaerak
22. Bestelakoak

MOTORRA

23. Saldu

24. Erosi
25. Bestelakoak

DENETARIK

26. Saldu
27. Erosi
28. Trukatu
29. Eman
30. Hartu
31. Galdu
32. Aurkitu
33. Bestelakoak

HARREMANAK

34. Agurrak
35. Kontaktuak
36. Deialdiak
37. Bestelakoak



943 77 05 65

ARRASATE PRESS • Otalora Lizentziatua, 31 • 20.500 (ARRASATE)

Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohainekoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Pressek ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik. Astearte eguerdia baino lehen deitu behar da iragarkia jartzeko.

- Gela bat alokatzen da, alde zaharrean. Tel.: 943 79 87 59.
- Donostian etxea osatzeko bi neska behar dira. Tel.: 943 79 74 03.
- Irailetik aurrera gela bat behar dut Arrasateko etxe batean. Dei egin 943 71 24 00 telefonora (221 luzapena, David), bulego orduetan.
- Etxebizitza osatzeko bi lagun behar dira Amaran, Donostian. Egoera onean dago. Tel.: 943 79 53 58 / 943 79 27 42.
- Gela bat alokatzen dut Juan Carlos Gerra kaleko 4an, 2. solairuan eskuinean. Tel.: 943 79 68 00. Iluntzean deitu.
- Irailetik aurrera beste batzuekin bizitzeko prest nago, ikasleekin ahal bada. Tel.: 943 62 59 35. Silvia.
- Iruñean etxebizitza osatzeko lagun bat behar da. Etxea berria da eta egoera onean dago. Tel.: 943 79 59 12.

LANA

17. Eskaintzak

- Tabernan zerbitzari lanetan aritzeko neska prest. Tel.: 943 79 68 77.

Vanessa.

- Neska arduratsua prest umeak zaintzeko. Tel.: 943 71 53 74. Goizetan edo 20:00etatik aurrera.
- Emakume esperientziaduna prest etxeko lanak egiteko eta gaixoak edo umeak zaintzeko. Tel.: 943 79 11 46.
- Esperientziadun neska prest orduka garbiketarako (atariak, etxeak, dendak, e.a...). Tel.: 943 79 60 03. Deitu 21:00etatik aurrera.
- Neska tituluduna prest aerobic hezitzaile edota muskulazio begirale gisa lan egiteko. Tel.: 943 79 10 53. Deitu 21:00etatik aurrera
- Lanak ordenagailuz pasatzen dira. Tel.: 943 79 11 54.
- Emakume euskalduna prest umeak edo nagusiak zaindu edo etxe garbitzaile gisa lan egiteko. Tel.: 943 79 07 73.

18. Eskaerak

- Jatetxerako zerbitzaria behar da. Neska, euskalduna eta esperientziaduna. Tel.: 943 79 24 58.
- Sukaldari laguntzailea behar da jatetxerako. Tel.: 943 78 35 26.

- Ume bat zaindu eta etxeko lanak egiteko lituzkeen emakumea behar da Aramaioko baserri batean. Tel.: 929 422 314. Deitu 21:30etatik aurrera.

- Neska edo emakumea behar da tabernako sukaldean lan egiteko. Tel.: 943 79 00 34.

- Esperientziadun sukaldaria behar da. Arratsaldean deitu. Tel.: 943 79 00 60.

- Jostuna behar dugu dendan lan egiteko. Interesatuak bidali datuak 259 posta kutxatilara.

- Arrasateko gimnasio batek fisioterapeuta bat behar du. Interesatuak bidali curriculum honako helbidera, uztailaren 17a baino lehen: Pardo Estetika Zentrua (943 79 52 17); Iparagirre Plaza, 4 behea, 20500 Arrasate.

- Neska bat behar da abuztuan ile-apaindegi batean lan egiteko. Esperientzia eskatzen da. Tel.: 943 79 22 59. Lan orduetan deitu.

- Etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko neska bat behar da. Tel.: 943 77 00 80.

- Taberna lanetarako neska euskalduna behar dugu. Tel.: 945 44 50 86.

- Jostuna behar dugu errezelak edo kortinak eta lumatxak egiteko. Tel.: 943 79 27 27.

Lan oso erraza, etxetik mugitu barik. Berri gehiago nahi baduzu, bidali gutunazala eta zigilua helbide honetara: A.M.R. Anboto kalea, 20 - 1. ezk. 20500 Arrasate.

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak

- Udan eskola partikularrak emango nituzke. Matematika, fisika eta kimika. Tel.: 943 79 51 19 / 943 79 81 66. Ane.
- LH, DBH. latin eta ingeleseko eskola partikularrak ematen ditut. Esperientziaduna eta merkea. Tel.: 943 79 47 35.
- 14 urte arteko gazteei matematika eta fisikako eskola partikularrak emateko prest. Tel.: 943 79 81 70.
- Psikologoa eskola laguntza emateko gertu. Tel.: 943 79 86 28.
- Informatikako eskola partikularrak (Pascal, RPG, Clipper, Programazio metodologia, e.a...) ematen dira. Tel.: 943 79 11 54.
- Ingeniaritza Teknikoko 4. mailako

ikasle batek matematika eta fisika eskolak emango lituzke udan. Tel.: 943 79 51 68. Gorka (eguerdian deitu).

21. Eskaerak

• Etxean eskola partikularak hartuko nituzke, BTT 2. mailako elektroteknia, matematika, ingelesa eta gatzelania. Tel.: 943 79 34 53

• Kontabilitateko eskola partikularak jasoko nituzke. Deitu gaueko 21:30etatik aurrera 943 79 36 83 telefonora. Idoia.

• Txinera ikastea gustatuko litzaidake, norbait eskola partikularak emateko prest balego. Deitu 943 71 50 72 telefonora.

• Euskaraz dakien irakaslea behar nuke irailaren 1etik aurrera, ESOko 1. mailan hasiko den gazte bati eskolak emateko. Tel.: 943 79 06 24 / 943 79 94 52.

• Estatistikako eskolak hartuko nituzke. Tel.: 943 79 79 12.

• Paleografia eta Diplomatikako eskolak jasoko nituzke uztailean. Tel.: 943 79 94 92. Pilar.

• Kontabilitate eta matematika finan-

tzieroko eskola partikularak hartuko nituzke uztailean eta abuztuan. Tel.: 943 79 48 99.

MOTORRA

23. Saldu

• Kawasaki Vulkan 800, 93. urtekoa eta gehitutako zerbitzuekin salgai, 600.000 pta.tan (negoziagarriak). Tel.: 943 77 10 30.

• Yamaha TZR-80 motorra salgai. SS-V. Tel.: 943 79 73 54.

• Denda erremolke alemaniarra salgai, egoera onean. Tel.: 943 79 73 04.

DENETARIK

26. Saldu

• Jamsterra salgai, 200 pta.tan. Tel.: 943 77 17 82.

• Urte bat baino ez duen errepideko bizikleta baten koadroa salgai. Ezagarrak: Tuberia Columbus SLX Pinarrello JJC; urkila zuzena, kolore horia eta 60ko neurrikoa dena. Oso mer-

kea. Tel.: 943 71 42 32. Iñigo.

• Trialeko bizikleta salgai. Bikotrial X. clas 219. Tel.: 943 79 93 03.

• Mendiko bizikleta salgai. Zazpi urtera artekoentzat. Merke. Tel.: 943 79 79 53.

• Umeak autoan eramateko aulkia salgai. Tel.: 943 79 79 53.

• Aguakate ekologikoak salgai. Merke. Tel.: 943 77 04 98.

• Errepideko bizikleta erdi berria salgai. 15.000 pta. Tel.: 943 79 60 81.

• Diapositiba proiektorea bere pantailarekin salgai dago. Reflecta Diamator AF markakoa da. Tel.: 943 79 63 12. Sebastian. Deitu eguerdian.

• Planeta Agostini argazki ikastaroa salgai dago. Praktikak barnean ditu. 8 liburuki. Tel.: 943 79 63 12. Sebastian. Deitu eguerdian.

• "Nosotros los vascos" enziklopedia salgai dago. 21 liburuki. Tel.: 943 79 63 12. Sebastian. Deitu eguerdian.

• Yamaha 250 berezia saltzen da. SS-AM matrikula, 12.000 km. 250.000 ptatan eta oso egoera onean. Tel.: 943 79 55 88.

27. Erosi

• 2m.ko kaxa duen erremolke erosi nuke. Tel.: 943 73 19 60. Joseba. 21:00etatik 22:00etara.

• Disko singleak eta LPak erosten ditut. Tel.: 943 52 65 77.

• Katuarentzako transporting-a erosi nuke. Neurri erdi edo txikikoa. Tel.: 943 77 10 20.

31. Galdu

• Giltzak galdu ditut Zarugaldetik Santa Agedara bidean. Tel.: 943 77 14 77.

• Ostiralean Express tabernaren ondoko lorategian Adidas markako jertse gorria galdu nuen. Mesedez, aurkituz gero, deitu: 943 79 61 65.

32. Aurkitu

• Etxeko katu bat aurkitu dugu. Beltza da eta lepokoa ere badauka. Tel.: 943 79 25 07.

• AH hizkidun bizkar zorro berde-laranja morea aurkitu dugu. Arrasate Press-en galdetu. Arantzazu.



Zatoz eta
ezagutu
gaitzazu!



Aldibi autoak, S.A.



Izar autoak, S.L.

VOLVO

Auto Suecia



mazda

Musakola autoak, S.L.



GALLOPER

Aldikar autoak, S.L.



Co-Car, S.L.



HYUNDAI

Musakola autoak, S.L.



MITSUBISHI
MOTORS

Aldikar autoak, S.L.

ALDIBI AUTOAK, S.A. • Zigorrola, 1 • ARRASATE • Tel.: 71 20 02 / Faxe: 79 65 65



Musakolako Hostal jate-txearen kanpoaldean ateratako argazki hau zein urtetakoa den ez dakigu, baina bai, dotore-dotore jantzita eta abesbatza itxurarekin, argazkilaria begira dagoen kuadrila. Arrasateko 31ko soldadugaiak direla. Bat despistatu xamar ibili zen eta argazkitik kanpo geratu zen.

Hurrengoan argiago ibili beharko da, herriko soldadugaien historiarako geratu nahi badu.

Goian, ezkerretik hasita: Gregorio Lazpiur, Feliciano Aranzabal, Lucio Zubia *Liorra*, Karmelo Irazabal, Esteban Dolara, Jose Antonio Goñi, Antonio Balerdi, Candido Iturbe, Victor Gorosabel, Gregorio Armendia, Tomas Abetxuko, Iñaki Gorospe, Ignacio

Goikoetxea, Gregorio Egida-zu *Mazua* eta Txomin Iria *Kartxel*.

Erdian: Lucio Okina, Daniel Etxaburu, Hilario Mañabeitia *Valor*, Segundo Zaitegi, Florentino Gonzalez *Atano*, Juanito Etxebarria, Calixto Urzelai eta Jesus Leibar *Txanpon*.

Behean: Marcos Balanzategi *Aizkora*, Donato Aranburuzabala, Alejandro Kortaba-

ria, Patxi Lamarain, Juan Loiti, Leandro Agirre, Claudio Langaran *Kaxero*, Hilario Uzarraga *Nevera*, Teofilo Beltran, Martin Heriz, Esteban Aguilars *Panaderito*, Xabier Zelaiaundi *Antoña* eta Felix Amozarrain *Paiko*.

Argazkia eta berriak:
Iñaki Yarza.



PARDO estetika zentrua

- DEPILAZIO PROGRESIBOA
- DEPILAZIO ELEKTRIKOA (BLEND ETA FLASH METODOA)
- SOLARIUMA DUTXAREKIN

Abuztuan
zabalik!
19, 20
eta 21ean
ezik

AURPEGI ETA GORPUTZERAKO TRATAMENDUAK

- Drainaketa linfatikoa.
- Erreafirmatzailea.
- Elektroeskultura eta ultrasoinuak.
- Antizeluliti murriztailea.
- Mantenimendua.



Iparragirre enparantza, 4 Behea. Grupo San Juan ☎: 943 79 52 17 ARRASATE

Zure begiak eta ikusmena babesteko...

Uztailean, erabili
eta botatzeko

PRECISION UV™

② kaxa lentilla
12.000 pta.tan erosteagatik

...Instituto Opticok
FreshLook

kolorezko 2 lentilla
oparituko dizkizu



**Kalitatea
saltzen dugu.**

INSTITUTO OPTICO
Erdiko kale, 22
20500 **ARRASATE**
943 79 71 68

INSTITUTO OPTICO
Andra Mari, 8
48200 **DURANGO**
94 6202986

INSTITUTO OPTICO
Hiper Eroski
20500 **ARRASATE**
943 79 78 26

INSTITUTO OPTICO
Grupo San Ignacio, 3
48200 **DURANGO**
94 6818492

OPTICA GARAGORRI
Iturriotz, 29
20500 **ARRASATE**
943 79 16 98

INSTITUTO OPTICO
Erdiko kale, 21
20830 **MUTRIKU**
943 60 31 54



cerámicas
URIBARRI

**Zeramika
erakusketa
eta salmenta**


Uribarri Etorbidea, 22-B
Tel.: 943 79 81 80 • Faxe: 943 79 81 80
ARRASATE

INABARMEN ZAITEZ!



CORSA
MUNDIAL
BERRIA
(EDIZIO BEREZIA)

Opel Corsa Mundial, nabarmenduko zaituen ekipamendurekin
Direkzio lagundua, aleaziozko llantak,
atzeko Spoilerra hiru ateko autoan, tapizeria eksklusiboa.
Benetan berezia. Opel Corsa Mundial
berria kalean da.
Nabarmen zaitez **zure bizitzako motorrarekin.**

OPEL 



PATROCINADOR OFICIAL

TALLERES OLA

Olabarrena auzoa, z/g. Tels.: 76 33 44 / 45 / 46 / 47. BERGARA.

Zerbitzu ofiziala ARRASATEN

TAKOLO AUTOAK, S.L.

Araba Etorbidea, 3.(escatu pabiloia). Tel.: 79 05 86

OPEL KONTZESIONARI OFIZIALAK, HOBEAK